



Tolosako haur, nerabe eta gazteen plana 2023-2027

2022ko abendua

Siadeco^x
ikerketa aplikatua

Berio pasealekua 11, 20018 Donostia
943 31 00 34
siadeco@siadeco.eus



Aurkibidea

0. Sarrera	3.
1. Planaren helburu orokorrak edo erronkak	4.
2. Ekintza-plana	5.

0. Sarrera

2021-2022 bitartean egindako diagnosia oinarri hartuta, Tolosako Udalaren haur, nerabe eta gazteen plana osatu du Siadeco Ikerkerketa Elkartek Tolosako Udalaren enkarguz. Ekintza sorta baten bidez, plan honek zehazten ditu Tolosako Udalak haur, nerabe eta gazteen ongizatea bermatzeko egin beharreko esku-hartzeak eta eskaini behar dituen zerbitzuak, eta horretarako udalaren barnean egin beharreko berrantolaketa.

Ekintza-plan hau bost ardatzetan egituratuta dago, Tolosako Udalak haur, nerabe eta gazteen bueltan dituen bost erronka nagusiekin lotura dutenak. Ardatz bakoitzak helburu espezifiko batzuk ditu – denera, 17 –, eta helburu horien baitan kokatzen dira ekintza zehatzak – denera, 69 ekintza jasotzen ditu planak –.

Ekintza bakoitza azaltzeaz gain, beste elementu batzuk ere zehazten dira fitxa batean: adin-tartea, eragileak, lehentasunak eta jarraipenerako adierazleak. Eta bukaeran, kronograma eta aurrekontua proposatzen dira.

1. Planaren helburu orokorrak edo erronkak

Ekintza-plana bost ardatz nagusiek hezurtzen dute, eta plan honek dituen bost erronka nagusiei erantzuten diete.

1. ARDATZA: Haur, nerabe eta gazteen aisialdiaren erabileran esku-hartzea eta herriko espazioak eta ekipamenduak haur, nerabe eta gazteen beharretara egokitzea

Tolosako haur, nerabe eta gazteen premiei erantzutea eta haien aisialdia atsegina, hezitzailea eta integrala izatea da Tolosako Udalaren helburuetako bat. Horretarako, batetik, zerbitzu eta eskaintza egokia eta kalitatezkoa eskaintzeko ahalegina egingo du Udalak, jarduera propioak eskainiz eta beste eragileenak bultzatuz eta bestetik, horiek baldintza egokietan garatzeko espazio eta ekipamenduak sortu, egokitu, mantendu eta bestelako eragileen esku jarriko ditu.

2. ARDATZA: Parte-hartzea, herritartasuna eta komunitatearekiko lotura sustatzea

Haur, nerabe eta gazteen herritartasun-eskubidea aitortuz, Tolosak haien parte-hartzea bultzatu behar du, bai herri-mailan, eta baita Udalaren barnean ere. Horretarako Udalak, gazteekiko komunikazio eta harreman sareak ehuntzeko lana egingo du, informazioaren elkartrukea bultzatuz eta parte-hartzeko bitartekoak eta aukerak sustatuz.

3. ARDATZA: Bizi estilo osasuntsua, jasangarritasuna eta berdintasuna bultzatzea

Haur, nerabe eta gazteen artean bizi estilo osasuntsua, jasangarria eta genero berdintasunean sustatzea da plan honek, eta oro har, Udalak duen beste erronketako bat.

4. ARDATZA: Emantzipazioa eta autonomia sustatzea: enplegua eta etxebizitza

Tolosako gazteei herrian bertan emantzipatzeko aukerak eskaintzea eta horretarako baldintzak sortzea dagokio Udalari, gazteek enplegu duinerako sarbidea eta etxebizitza izateko aukera izan dezaten.

5. ARDATZA: Haur, nerabe eta gazteen saila indartzea, zabaltzea eta ikusaraztea

Tolosako haur, nerabe eta gazteen errealitatea aitortu eta kontuan hartuko duen Udala izan dadin, gazteria zerbitzuaren funtzioak eta baliabideak aztertu eta egun duen antolaketa egokitzea funtsezkoa da, Plan hau modu egokian kudeatu eta garatzeko eta horren bidez, adin-multzo horri ahotsa eman, haien premiak eta beharrak gertuagotik ezagutu eta kudeatu, gazteria politikaren erreferentea bihurtu eta haur, nerabe eta gazteak herri bizitzan txertatzeko egiten duen lana hobetzeko.

2. Ekintza-plana

Aurreko ataletan zehaztu moduan, ekintza-plan hau 5 lan-ardatz nagusitan egituratzen da, eta haien baitan, denera 17 helburu espezifiko eta 69 ekintza zehaztu dira.

Lan-ardatzak	Helburu espezifiko kopurua	Ekintza kopurua
1. Haur, nerabe eta gazteen aisialdiaren erabileran esku-hartzea eta herriko espazioak eta ekipamenduak haur, nerabe eta gazteen beharretara egokitzea	5	24
2. Parte-hartzea, herritartasuna eta komunitatearekiko lotura sustatzea	3	12
3. Bizi estilo osasuntsua, jasangarritasuna eta berdintasuna bultzatzea	3	12
4. Emantzipazioa eta autonomia sustatzea: enplegua eta etxebizitza	3	12
5. Haur, nerabe eta gazteen saila indartzea, zabaltzea eta ikusaraztea	3	9
Guztira	17	69

1. ARDATZA: Haur, nerabe eta gazteen aisialdiaren erabileran esku-hartzea eta herriko espazioak eta ekipamenduak haien beharretara egokitzea

1.1.HELBURU ESPEZIFIKOA: Aisialdi hezitzailearen udal eskaintza zabaltzea (haur, nerabe eta gazteengana zabaldu) eta bultzatzea.

1.1.1.Ekintza: 10-12 urtetik beherakoentzat aisialdi hezitzaile publikorako aukerak aztertzea (ludoteka, urte osoko programa, udalekuak...) aisialdi taldeekin eta ikastetxeekin elkarlanean

Adin-tartea: 0 - 10 urte

Azalpena:


Tolosako 10-12 urtetik beherako biztanleentzat aisialdi hezitzaile eskaintza, neurri handi batean, pribatua da: ikastetxeek eta aisialdi taldeek antolatzen dute. Horren aurrean, Udalak eskaintza publikoa, doakoa eta integratzailea proposatu beharko lukeela aipatu da. Lan hori, baina, esparru horietan lanean ari diren eragileekin egin nahi du Udalak: haiekin adostu eta proposamen bat landuko da.

Horretarako, Udalaren eta aisialdiaren esparruan ari diren eragileen artean lan-taldea sortuko da. Hasteko, egungo eskaintzaren azterketa egingo da, alde onak eta hutsuneak identifikatuz. Ondoren, proposamena lantzeari ekingo zaio. Diagnostikoaren fasean identifikatutako zenbait eskaera jarri ahal izango dira mahai gainean, besteak beste: ludoteka, udaleku irekiak, urte osoko programazioa...

Eragileak:

- Tolosako Udaleko Gazteria Zerbitzuak, eta Kirolak eta Hezkuntza sailak.
- Ikastetxeak: Laskorain Ikastola, Samaniego Herri Ikastetxea eta Herrikide Ikastetxea, eta haien aisialdi eskolak.
- Gainontzeko aisialdi elkarteak eta udako programa berezia antolatzen duten elkarteak.

Lehentasuna



Jarraipenerako adierazleak

- Lan-taldea sortu den ala ez
- Lan-taldeak egin duen bilera kopurua
- Proposamen bat adostu den ala ez

1.1.2. Ekintza: Gazte Topagunearen zerbitzua indartzea egungo beharretara egokituz (azpiegitura eta baliabide materialak, baliabide pertsonalak eta funtzionamendua -ordutegiak, ekintza motak...)

Adin-tartea: 10/12 - 17 urte

Azalpena:

10/12-17 urte bitartekoei berariaz zuzendutako aisialdi hezitzaile zerbitzu publiko bakarra da Gazte Topagunea. Nerabeen artean ezaguna da, baina ez da erakargarria erabiltzaile potentzial guztientzat.

Badira erabiltzaileek ondo baloratzen dituzten zenbait alderdi: babestutako eta arau gutxiko tokia izatea, antolaten diren jolasak eta irteerak, janarien inguruko ekintzak, monitoreekin hitz egiteko ematen duen aukera, etab. Era berean, badira hobetu beharreko zenbait alderdi ere: adin-tarteen artean dagoen diferentzia, espazioa txikia geratu dela, ordutegia murriztu dela eta irudi zaharkitua izatea.


Horiek guztiak kontuan izanik, proiektuaren eraldaketa prozesua hastea proposatzen da: batetik, proiektua bera indartzeko eta zabaltzeko; eta bestetik, identifikatutako hutsuneak gainditzeko.

Horretarako, diagnostikoaren fasean identifikatutakoaz kontuan hartzeaz gain, ezinbestekoa izango da Udalak Gazte Topaguneko hezitzaileekin eta nerabeekin elkarlanean lantzea proiektua.

Eragileak:

- Tolosako Udaleko Gazteria Zerbitzua.
- Gazte Topaguneko hezitzaileak
- Gazte Topaguneko erabiltzaileak.

Lehentasuna



Jarraipenerako adierazleak

- Eraldaketarako proiektua landu den ala ez
- Gazte Topagunera bertaratutako nerabe kopurua
- Identifikatutako hutsune eta arazoetatik zenbat gauzatu diren

1.1.3. Ekintza: 17 urtetik gorako gazteei erakargarria egingo zaien aisialdi eskaintza lantzea gazteen parte-hartzearekin

Adin-tartea: 17 - 25 urte

Azalpena:

17 urtera arteko aisialdi eskaintza egiten die Gazte Topaguneak Tolosako gazteei; ordutik aurrera, eskaintzarik ez dago. Dagoeneko Udalak egiten duen eskaintzari jarraipena ematea da asmoa. Eta bereziki, diagnostikoaren fasean azaleratu diren bi hutsuneei erantzuteko asmoz.

Batetik, ez dago kontsumora bideratutako eskaintzaren alternatibarik. Gazteen kasuan, bereziki larunbat arratsaldeetan, Euskal Herria plaza izaten da haien elkargune: bertako tabernetan kontsumitzen igarotzen dute arratsalde/gaua. Horren aurrean, alternatibarik ez dago, eta gazteek beraiek onartzen dute.


Bestetik, eskaintza edo ekintza autogestionatu baten beharra sumatzen dute gazteek: gazteek gazteentzat antolatutako aisialdi eskaintza edo ekintzak, guno edo eremu estali bat izateko aukerarekin.

Hori guztia kontuan hartuta, Udalak gazteekin beraiekin planteamendu bat lantzea proposatzen da.

Eragileak:

- Tolosako Udaleko Gazteria Zerbitzua.
- 17-25 urte bitarteko gazteak
- Tolosako kirol, kultura eta aisialdi elkarteak.

Lehentasuna



Jarraipenerako adierazleak

- Udalak gazteekin egindako bilera/saio kopurua
- Bileretan/saioetan parte hartu duen gazte kopurua
- Proposamen bat landu den ala ez

1.1.4. Ekintza: Gazteen arteko harremanak eta topaketa bultzatzeko ekintzak burutzea, herriko elkarteekin elkarlanean

Adin-tartea: 12 - 17 urte

Azalpena:

Tolosako kuadrillen egituraketan ikastetxeek eta generoak eragin handia dute: ohikoena da kuadrillak ikastetxeetan sortzea, eta nesken edo mutilen kuadrillak izatea.


Besteak beste, Tolosako aisialdi eskaintzan dauden hutsuneak direla-eta, kuadrillen arteko topaketarako edo nahasketarako espazio eta momentu gutxi dago. Hain zuzen, horiek areagotzea da ekintza honen helburua.

Herriko elkarteekin elkarlanean egitea proposatzen da, herri-ekimenetik sortutakoak baitira gazteek gehien baloratzen dituzten ekintzak: Tolobolei, kintoen bazkaria, 4x4 saskibaloitxapelketa, Ero-Etxe lasterketa... Gainera, hein batean, kirol elkarteek harremanak normalizatzen lagundu duela aipatu da, beraz, haiek funtzio berezia izan dezakete.

Eragileak:

- Tolosako Udaleko Gazteria Zerbitzuak, eta Kirolak eta Kultura sailak.
- Gazte Topaguneko hezitzaileak
- Tolosako kirol, kultura eta aisialdi elkarteak

Lehentasuna



Jarraipenerako adierazleak

- Antolatutako jarduera kopurua.
- Parte-hartzaile kopurua.
- Jarduerei buruzko balorazioa.

1.2.HELBURU ESPEZIFIKOA: Haur, nerabe eta gazteen artean kultura sustatzea: eskaintza bera eta sormenerako baliabideak indartzea.

1.2.1.Ekintza: Haurrei zuzendutako programazioari jarraipena ematea eta ahal den neurrian, indartzea

Adin-tartea: 0 - 12 urte


Azalpena:

Udalak haurrentzat antolatutako kultura-eskaintza, oro har, ondo baloratuta dago. Gainera, azken urteetan, bereziki San Joanetan, haurrek egindako proposamenak kontuan hartu direla aipatu da: haurrentzat programazio berezia egin da, eta kontzertu bereziak ere antolatu izan dira. Ildo horretatik jarraitzea proposatzen da: kultur programazio bereziak sortuz haurrentzat, eta ahal den neurrian, indartuz, haien proposamen eta nahiak kontuan hartuta.

Eragileak:

- Tolosako Udaleko Gazteria Zerbitzua eta Kultura sailak.
- Jai Batzordea
- Inauterietako karrozak eta konpartsak.

Lehentasuna



Jarraipenerako adierazleak

- Haurrentzat programazio berezia egin den ala ez
- Zenbat jarduera antolatu diren
- Programazio horren balorazioa

1.2.2. Ekintza: Nerabe eta gazteei zuzendutako kultur eskaintza diseinatzeko parte-hartze prozesua garatzea: lehenengo, nerabe eta gazteen nahiak eta beharrak zein diren identifikatzeko; eta ondoren, programazioa halekin diseinatzeko

Adin-tartea: 12 - 17 urte eta 18 - 30 urte

Azalpena:

Haur, nerabe eta gazteen segmentua kontuan hartzen badugu, Tolosako Udalaren kultur programazioa, bereziki, haurrei zuzendutakoa da. Nerabe eta gazteei zuzendutako ekintzak puntualagoak izaten dira.

Ekintza honen helburua da nerabe eta gazteei zuzendutako kultur eskaintza antolatu ahal izateko parte-hartze prozesua antolatzea. Prozesu honek bi fase izango ditu:


1. Nerabe eta gazteen nahiak eta beharrak identifikatuko dira, lehenengo.
2. Eta ondoren, informazio hori oinarri hartuta, urtez urteko programazioa landuko da nerabe eta gazteekin: urtean zeharreko ekintzak, San Joanetarako eta Inauterietarako jarduerak, etab.

Parte-hartze prozesua aurrera eramateko, zenbait komunikazio-kanal baliatuko dira: aurrez aurreko topaketak, sare sozialen bidezko inkesta laburrak, etab.

Eragileak:

- Tolosako Udaleko Gazteria Zerbitzua, eta Kultura eta Gobernantza sailak.
- 12-17 eta 18-30 adin-tarteetako nerabe eta gazteak.

Lehentasuna



Jarraipenerako adierazleak

- Burututako parte-hartze saioen kopurua eta bertaratutako gazte kopurua.
- Parte-hartzeko erabilitako bestelako kanalak eta zenbatek parte hartu duten bestelako kanalen bidez
- Programazioa osatu den ala ez, eta zenbat ekintza jasotzen dituen.

1.2.3.Ekintza: Nerabeei berariaz zuzendutako kultur tailerrak eta ikastaroak antolatzea

Adin-tartea: 12 - 17 urte

Azalpena:

Tolosako Udalak urtero kultur tailerren eskaintza egiten die tolosarrei: helduentzako eta haurrentzako ikastaroek osatzen dute ikasturte osorako eskaintza hori. Ekintza honekin proposatzen dena da dagoeneko antolatzen diren 'Gazte tailerrak' indartzea: eskaintza osoan txertatuz, eta urte osorako antolatuz.


Horrez gain, egungo ikastaro-motez gain (Komikigintza, sare sozialetarako argazkigintza eta joskintza), bestelako ikastaroak eskaintzeko aukera azter daiteke.

Nerabeei berariaz zuzendutako eskaintza litzateke, beraz, ezinbestekoa izango da euren gustuei eta nahiei, zein euren ordutegiei egokitutakoak izatea.

Eragileak:

- Tolosako Udaleko Gazteria Zerbitzua, eta Kultura Sailak.
- 12-17 adin-tarteetako nerabe eta gazteak.

Lehentasuna



Jarraipenerako adierazleak

- Nerabeei berariaz zuzendutako tailer eta ikastaro kopurua
- Parte-hartzaile kopurua
- Parte-hartzaileen balorazioa.

1.2.4. Ekintza: Amaroako entsegu lokalen dinamizazioarako eta jarraipenerako plana diseinatzea eta garatzea

Adin-tartea: 18 - 30 urte

Azalpena:

Herriko gazteen musika-taldeek entseatzeko toki egokia edukitzea da Amaroako entsegu lokalen helburua. Egun, entsegu lokal guztiak daude okupatuta, baina diagnostikoaren arabera, bertan sortutakoari zukua atera beharra dago. Horretarako, entsegu lokal horien eskaintza osatuko duen dinamizazioarako eta jarraipenerako plana diseinatzea proposatzen da: herriko taldeei entseguetarako lokala uzteaz aparte, sorkuntza sustatzeko eta herrian haien lana sustatzeko aukera emateko.

Ondorengo urratsak egin daitezke: entsegu lokalen egungo egoera aztertu eta horren arabera azpiegitura eta ekipoen baldintzak hobetu; entsegu lokalen erabilerarako protokolo bat osatu (taldeen errotazioa sustatzeko; egunak eta ordu-tegiak zehazteko; ekipoak eta dotazioak erabiltzeko baldintzak finkatzeko; bertan egindako lana gizarteratu/plazaratzeko aukerak aztertu...); protokolo hori zabaldu eta dinamizatu entsegu lokalak Tolosako musika talde eta zaletuen artean ezagutarazi eta lokal horien erabilera sustatzeko; lokalen erabileraren jarraipena egiteko sistema finkatu.

Eragileak:

- Tolosako Udaleko Gazteria Zerbitzua eta Kultura Saila.
- Tolosako Musika Eskola
- Amaroako entsegu lokaletan entseatzeko duten taldeak.

Lehentasuna



Jarraipenerako adierazleak

- Dinamizazioarako plana diseinatu ote den.
- Planaren barruan zenbat jarduera egin diren.
- Jardueren balorazioa.

1.2.5. Ekintza: Udalaren kultur eskaintzaren berri emateko komunikazio-kanal egokiak lantzea gazteei begira

Adin-tartea: 10 – 30 urte

Azalpena:


Udalak kultur programazioa indartzeaz gain, antolatzen den horren komunikazioa hobetu behar duela ondorioztatu da diagnosiaren fasean. Horretarako, kultur eskaintzaren komunikazio-plana diseinatzea proposatzen da. Adin-tarteka banatuko da, publiko bakoitzarengana iristeko komunikazio-kanal egokiak erabiltzera bideratzeko.

10 urtetik gorakoei zuzenduko zaie, orduan hasten baitira haurrak gurasorik gabeko lehen planak egiten.

Eragileak:

- Tolosako Udaleko Gazteria, Kultura eta Komunikazioa.
- Komunikazio-aholkularitzarako enpresa bat

Lehentasuna



Jarraipenerako adierazleak

- Komunikazio-kanal bakoitzaren erabilera-maila
- Komunikazio-kanal bakoitzaren bidez zenbatek jaso duten mezua

1.3.HELBURU ESPEZIFIKOA: Haur, nerabe eta gazteen artean bizitza osasuntsua eta kirolaren praktika sustatzea.

1.3.1.Ekintza: Usabal kiroldegia eta haren ingurua gazteen elkargune gisa indartzea

Adin-tartea: 10 – 18 urte

Azalpena:

Ekipamendu erakargarria eta modernoa da Usabal kiroldegia: astean zehar zein asteburuetan gazteen elkargune bihurtzen dena. Izaera hori indartzeko beharra antzeman da.

Batetik, kontuan izan behar da udalak dagoeneko badituela kirol-gunea are erakargarriagoa bihurtzeko planak. Hain zuzen ere, Usabalgo 3. Fasea eraikiko da: skate parkea handituko da, pump truck bat egingo da...


Bestetik, Tolosako nerabeen eta gazteen azterketatik ondorioztatutako zenbait hutsuneri ere heldu beharko litzaioke: Usabalen ordutegia malgutzeari, besteak beste.

Proposatzen dena da Usabalen eremuan hemendik aurrera egiten den lanak kontuan hartzea gazteen elkargune izaera hori.

Eragileak:

- Tolosako Udaleko Gazteria Zerbitzua, eta Kirola eta Hirigintza sailak.
- Kiroldegia kudeatzen duen enpresa

Lehentasuna



Jarraipenerako adierazleak

- Egindako esku-hartze kopurua.
- Gazteen balorazioa
- Gazteen erabilera-maila.

1.3.2. Ekintza: Gazteek banakako kirola egiteko aukerak erraztea udal ekipamenduetan: kiroldegiko abonua berezia martxan jartzea gazteentzat eta gimnasioko adin-muga egokitzea

Adin-tartea: 14 - 25 urte

Azalpena:


Taldekako kirola ez ezik, Tolosan gero eta gazte gehiago dira banakako kirola egiten dutenak: entrenatzeko askatasun gehiago ematen du, eta era berean, konpromiso-maila txikiagoa eskatzen du. Horretarako, udal kirol ekipamenduetara jotzen dute gazte askok.

Dena den, zenbait hutsune sumatu dituzte, bereziki, Tolosako nerabeek. Batetik, kiroldegiko abonua garestia iruditzen zaie gazteei, eta horren aurrean, gazteentzat kiroldegiko abonua berezia martxa jartzea proposatzen da. Bestetik, 16 urtetik gorakoek besterik ezin dituzte Tolosako udal gimnasioak erabili eta adin-muga jaistea eskatzen dute. Eskaera horri erantzuteko, adin-muga egokitzea proposatzen da, eta hori nola egin lantzea Kirol sailarekin elkarlanean.

Eragileak:

- Tolosako Udaleko Gazteria Zerbitzua eta Kirol Saila.
- Kiroldegia kudeatzen duen enpresa.

Lehentasuna



Jarraipenerako adierazleak

- Proposatutako esku-hartzeak burutu diren ala ez, eta horiek izandako erantzuna: zenbat erabiltzaile dauden, eta gazteen balorazioa zein den.
- Kirol Sailarekin egindako lanketari buruzko balorazioa.
- Kiroldegia kudeatzen duen enpresaren balorazioa.

1.3.3. Ekintza: Eskola Kirolaren programa indartzea: balioak gizarteratzeko sentsibilizazio-kanpaina egitea eta baliabideak handitzea

Adin-tartea: 6 – 12 urte

Azalpena:

Eskola Kirola Gipuzkoako Foru Aldundiak arautzen duen programa bat da, 6 eta 12 urte bitartekoei zuzendutakoa. Eredu hau multikirolaren kontzeptuan oinarritzen da, kirola zenbat eta praktika zabalagoa eta anitzagoa izan aberatsagoa dela. Ohitura osasuntsuak sustatzeaz gain, egokia da giza-baloreak transmititzeko: talde-lana, taldearekiko konpromisoa, elkarri laguntzea.


Nahiz eta programaren planteamenduarekin bat egin, diagnostikoaren arabera oro har ez da lortu Eskola Kirolaren ereduaren balioa modu egokian komunikatzea. Gainera, elkarteei Kirol Eskolarako baimena eman zaie: elkarte baten barnean kirol baten bueltan aritzeko aukera ematen die haurrei, baina lehiatu gabe. Kasu honetan, ezinbestekoa da Eskola Kirolaren programan ere parte-hartzea, teoriarik, osagarriak baitira. Egoerak baina, Eskola Kirola ahuldu du: batetik, eskolek ezin dutelako lehiatu elkarteek dituzten baliabideekin; eta bestetik, haurrek eta zenbait gurasoek ez dutelako ulertzen Eskola Kirolean parte hartzeko derrigortasuna.

Hori guztia ikusita, Eskola Kirolaren programa indartzea proposatzen da. Batetik, programaren beraren balioak Tolosa mailan gizarteratzeko sentsibilizazio-kanpaina bat eginez; eta bestetik, udalak bideratu ditzakeen baliabideak handituz.

Eragileak:

- Tolosako Udaleko Kirol Saila.
- Tolosako ikastetxeak
- Tolosako kirol elkarteak.

Lehentasuna



Jarraipenerako adierazleak

- Sentsibilizazio-kanpaina egin den ala ez eta haren balorazioa.
- Sentsibilizazio-kanpainarako komunikazio-kanalak eta haien eraginkortasun-maila.
- Udalak Eskola Kirola programara bideratutako baliabideak handitu dituen ala ez, eta zer portzentaje.

1.3.4. Ekintza: Kalean/espazio publikoan kirola edo ariketa fisikoa egiteko programa sortzea nerabe eta gazteei zuzendua

Adin-tartea: 13 - 18 urte


Azalpena:

Gero eta zabaldugo dago ingurune naturalean zein kalean kirola egitea, baita Tolosan ere. Besteak beste, Zumardia elkarteak eredu hori sustatzen du herrian bertan. Eredu hori nerabe eta gazteen artean zabaltzea proposatzen da, eta horretarako, kalean/espazio publikoan kirola edo ariketa fisikoa egiteko programa sortzea 13-18 urte bitartekoei zuzendua. Programa horren diseinua eta garapena Zumardia elkartearekin elkarlanean egitea proposatzen da. Gazteria arloak Kirol arloarekin elkarlanean egin beharko du.

Eragileak:

- Tolosako Udaleko Gazteria Zerbitzua eta Kirol Saila.
- Zumardia Elkarteak.

Lehentasuna



Jarraipenerako adierazleak

- Programa osatu den ala ez.
- Programaren jarduera kopurua eta haien aniztasuna, baita jarduera bakoitzean parte hartu duen gazte kopurua ere.
- Programaren balorazioa, bai Udalarena eta Zumardia elkartearena, zein parte hartu duten gazteena

1.3.5. Ekintza: Kirol ekipamenduen erabilerarako beharrak aztertzeko ikerlana egitea eta neurri zuzentzaileak ezartzea

Adin-tartea: 6 – 30 urte

Azalpena:


Egun, Tolosako udal kirol ekipamenduek eta instalazioek ez dituzte asetzen herriko elkarte eta norbanakoen beharrak eta eskaerak: espazio falta handia dago, bereziki, arratsaldeetan. Horren aurrean, berrantolaketa bat egitea komenigarria litzateke. Dena den, beste hutsune batzuk ere badituzte udal ekipamenduek.

Hori guztia identifikatzeko, kirol ekipamenduen erabilerarako beharrak aztertzeko azterlana egitea proposatzen da: hutsuneak eta arazoak identifikatzeaz gain, neurri zuzentzaile posibleak proposatuko ditu..

Eragileak:

- Tolosako Udaleko Kirol Saila
- Kiroldegia kudeatzen duen enpresa.
- Azterlana egiteko aholkularitza enpresa bat.

Lehentasuna



Jarraipenerako adierazleak

- Azterlana egin den ala ez.
- Azterlanak neurri zuzentzaileak proposatzen dituen ala ez, eta horietako zenbat exekutatzan diren.
- Azterlanaren ondorioei eta neurri zuzentzailei buruzko balorazioa.

1.3.6. Ekintza: Tolosaldeko gainontzeko udalekin kirol instalazioen erabilerarako hitzarmena lantzea eta adostea

Adin-tartea: 6 – 30 urte


Azalpena:

Tolosako kirol instalazioek, hein batean, eskualde osoari ematen diote zerbitzua: gainontzeko herrietako kirolari ugari erabiltzen dituzte. Horrez gain, Tolosako elkarteek ere beste herrietako haur eta gaztetxoek parte hartzen dute. Udal ekipamenduen arazoari aurre egiteko aukera bat izan daiteke gainontzeko herrietako instalazioetara jotzea. Horretarako, eskualde-mailako akordio bat beharko litzateke, instalazio horiek doan erabiltzea ahalbidetuko lukeena: frontoiak, kantxak, etab. Horren aurretik, Tolosaldeko udal kirol departamentuek lanketa egin beharko lukete, kirol elkarteekin elkarlanean.

Eragileak:

- Tolosako Udaleko Kirol Saila
- Tolosaldeko gainontzeko udaletako kirol departamentuak
- Tolosako eta Tolosaldeko kirol elkarteak

Lehentasuna



Jarraipenerako adierazleak

- Akordioa egiten den ala ez, eta horretarako egiten den lanketa: bilera kopurua, parte-hartzaile kopurua, eta balorazioa.
- Akordioaren barnean sartzen diren udal eta kirol ekipamendu kopurua.
- Kirol elkarteek akordioaren ondoren egiten duten erabilera-maila eta balorazioa.

1.4.HELBURU ESPEZIFIKOA: Tolosako espazio publikoa haur, nerabe eta gazteentzat erakargarria, atsegina eta segurua izatea.

1.4.1.Ekintza: Tolosa herri segurua izateko protokoloa lantzea eta adostea, gazteekin elkarlanean

Adin-tartea: 10 –25 urte


Azalpena:

Segurtasun faltaren sentsazioa oso zabaldua dago nerabe eta gazteen artean; are gehiago, nesken artean. Gaia gazteekin beraiekin lantzea proposatzen da (baita haiekin harreman zuzena duten eragileekin ere): arazoak eta guneak identifikatzea eta horiek kontuan izanda protokolo bat diseinatzea proposatzen da, gazteek zein udalak nola jokatu ahal izango duen zehaztuko duena. Helburua da haur, nerabe eta gazteen betaurrekoetatik, Tolosa herri segurua bilakatzea, zentzu zabalean.

Eragileak:

- Udaleko Berdintasun Saila eta Gazte Topagunea (sustatzaileak)
- Udaleko Gizarte Zerbitzuak, Gazteria Zerbitzua, Herritarren Segurtasuna.
- Tolosako ikastetxeak
- 10 eta 25 urte bitarteko haur, nerabe eta gazteak
- NURA elkarte (kale-hezitzaileak)
- ARAZI elkarte (Haurren Hiria programaren dinamizatzaileak)

Lehentasuna



Jarraipenerako adierazleak

- Protokoloa adosten den ala ez.
- Lanketan parte hartzen duten haur, nerabe eta gazte zein eragile kopurua (ikastetxeak, gazteekin lan egiten duten elkarte zein taldeak...).
- Komunikaziorako baliatutako kanal kopurua eta haien eraginkortasun-maila.
- Haur, nerabe eta gazteek lehen urtean egindako erabilera-maila.

1.4.2. Ekintza: Kaleak/espazio publikoa nerabe eta gazteen beharretara egokitzea, zenbait ekipamenduren hornikuntzarekin (iturriak, bizikletak aparkatzeko lekuak...)

Adin-tartea: 10 - 17 urte


Azalpena:

Tolosako kale eta espazio publikoetan, zenbait azpiegitura eta ekipamenduen falta aipatzen dute gazteek. Besteak beste, bizikletak aparkatzeko tokiak, iturri publiko gehiago edo zenbait tokitan argiztapena hobetzea eskatzen dute. Ekintza honi erantzuteko, Gazteria arloaren egitekoa izango da, Hirigintza arloarekin elkarlanean, hutsune horiek identifikatzea - diagnostiko fasean identifikatu dira horietako batzuk, baita kokapen zehatz batzuk ere -, eta ahal den neurrian horiekin hornitzea Tolosako kaleak/espazio publikoak. Horien identifikazioa errazteko Haurren Hiria programa ere baliatu daiteke.

Eragileak:

- Tolosako Udaleko Gazteria eta Hirigintza arloak.
- Tolosako haur eta nerabeak
- ARAZI elkarte (Haurren Hiria programaren dinamizazioa).
- Tolosako ikastetxeak

Lehentasuna



Jarraipenerako adierazleak

- Identifikatutako ekipamendu kopurua eta egikaritze-maila.
- Jarduerari buruz egiten den balorazioa: bai udalarena, Tolosako haur eta gazteena zein gazteekin lan egiten duten eragileena (ikastetxeak, elkarteak...).

1.4.3. Ekintza: Haur, nerabe eta gazteek gehien erabiltzen dituzten ekipamenduen jarraipen-lana egitea, eta beharrezkoa denean, txukunketa eta eraberritze-lanak proposatzea hirigintza sailari

Adin-tartea: 1 – 30 urte


Azalpena:

Tolosako haur, nerabe eta gazteen diagnosiaren ondorioetako bat da haiek erabiltzeko moduko ekipamendu batzuk badituela herriak, baina aldeak daudela erabilerari eta mantentzeari dagokionean: batzuk erabilera handia dute eta beste batzuk urriagoa; batzuk txukunketa lana behar dute eta beste batzuk, aldiz, goitik behera eraberritu behar dira. Hori horrela, Tolosako herrian haur, nerabe eta gazteei zuzendutakoak izan litezkeen ekipamenduen jarraipen-lana modu sistematizatuan egitea proposatzen da. Horrek ahalbidetuko du, beharrezkoa denean txukunketa- eta eraberritze-lanak proposatzea Hirigintza sailari. Aurrera begira behar horiek identifikatzeko, Haurren Hiria programa ere baliatu daiteke.

Eragileak:

- Tolosako Udaleko Gazteria Zerbitzua eta Hirigintza Saila.
- Tolosako haur eta nerabeak
- ARAZI elkartea (Haurren Hiria programaren dinamizazioa).
- Tolosako ikastetxeak

Lehentasuna



Jarraipenerako adierazleak

- Ekipamenduen jarraipen-lanari ekin zaion ala ez, eta zenbat lan-proposamen egin zaizkion Hirigintza Sailari.
- Hirigintza sailetik egin den txukunketa- eta eraberritze-lan kopurua.
- Lanketari eta jarraipenari buruzko balorazioa.

1.4.4. Ekintza: Erabilera urria duten ekipamenduen erabilera posibleak aztertzea eta haien erabilera-maila areagotzeko proposamena osatzea

Adin-tartea: 1 – 30 urte


Azalpena:

Ekipamendu ugari dituen herria da Tolosa, baina zenbait herritarren ustez, horietako batzuk ez dira behar adina erabiltzen: Zezen plaza, Plaza Berriako kioskoa, Beotibar frontoia... Horietako batzuk, gainera, nerabeei zein gazteei zuzendutako ekintzak burutzeko egokiak izan daitezke. Ekintza honekin proposatzen dena da erabilera urria duten ekipamenduak zein diren identifikatzea eta horien erabilera-maila handitzeko erabilera posibleak aztertzea, nerabeen eta gazteen ikuspegitik.

Eragileak:

- Tolosako Udaleko Gazteria, Hirigintza eta Kultura arloak.
- Herriko kultura eta aisialdi elkarteak

Lehentasuna



Jarraipenerako adierazleak

- Lanketa osatu den eta zenbat ekipamendurentzat proposamena egin den.
- Zenbat parte-hartzaile aritu diren lanketa lantzen, eta haien balorazioa.
- Proposamenik gauzatu ote den..

1.4.5. Ekintza: Balio anitzetarako baliagarria izango den gune estalia eraikitzeak aukera aztertzea hirigintza sailarekin batera

Adin-tartea: 1-16 urte


Azalpena:

Haur eta nerabeek jolasteko, kirola modu librean egiteko eta egoteko espazio estaliak falta dira Tolosan: ez dago ez frontoi publiko irekirik, ez egoteko espazio estali egoki nahikorik, ezta programa hezitzailek gabeko ekipamendu estalirik ere. Hutsune honi irtenbide bateratua ematea proposatzen da: balio anitzetarako baliagarria izango den gune estalia eraikitzeak aukera aztertzea. Haur, nerabe eta gazteen beharretatik abiatuta, Hirigintza arloarekin elkarlanean landu beharko da.

Eragileak:

- Tolosako Udaleko Gazteria Zerbitzua eta Hirigintza Saila.

Lehentasuna



Jarraipenerako adierazleak

- Proposamena landu den ala ez eta balorazioa.
- Proposamena lantzeko egindako bilera kopurua.

1.4.6. Ekintza: Hirigintza esku-hartzeak egiterakoan haur, nerabe eta gazteen ikuspegia txertatzea

Adin-tartea: 0 – 30 urte


Azalpena:

Tolosako haur, nerabe eta gazteen azterketa honek, hein batean, adin-multzo honen beharrak zein diren identifikatzeko balio izan du, baita hirigintzaren alorrean ere. Horiek kontuan izanda, proposatzen dena da Tolosako udalerrian aurrerantzean egiten diren hirigintza esku-hartzeetan nerabe eta gazteen ikuspegia txertatzea, hau da, herrian egiten den edozein ekipamendu edota azpiegiturak diseinatzerakoan kontuan hartzea kolektibo honen beharrak asetzen dituen ala ez.

Eragileak:

- Tolosako Udaleko Gazteria Zerbitzua eta Hirigintza Saila.

Lehentasuna



Jarraipenerako adierazleak

- Haur, nerabe eta gazteen ikuspegia sistematikoki txertatzen ote den hirigintza esku-hartzeetan.
- Orain arte, gauzatutako zenbat proiektutan txertatu den haur, nerabe eta gazteen ikuspegia.

1.5.HELBURU ESPEZIFIKOA: Herriaren dinamizazioan eta aisialdi eskaintzan eragiteko elkarte zein taldeekin egiten dituzten esku-hartzeak babestea eta laguntzea.

1.5.1.Ekintza: Herriko eragileek haur, nerabe eta gazteentzako antolatutako aisialdiko ekimenak aurrera eramateko dirulaguntza lerroa sustatzea

Adin-tartea: 0 – 30 urte


Azalpena:

Herri ekimenetik sortutako jarduerak dute arrakasta gehien, bereziki, nerabe eta gazteen artean. Hori horrela, era horretako ekintzak antolatzea bultzatu beharko luke udalak. Horiek aurrera eramateko, herriko edozein motatako elkarteek haur, nerabe eta gazteei zuzendutako ekimenak antolatzeko dirulaguntza lerroa sustatzea proposatzen da, lerroa ezagutarazteko behar den komunikazio-euskarriak eginez.

Eragileak:

— Tolosako Udaleko Gazteria arloa

Lehentasuna



Jarraipenerako adierazleak

- Dirulaguntza lerroari buruz egindako komunikazio-ekintza kopurua eta kanal bakoitzaren eraginkortasun-maila.
- Dirulaguntza eskatu duten elkarte kopurua eta dirulaguntza horren bitartez antolatutako ekintza kopurua.

1.5.2. Ekintza: Herriko eragileei ekintzak antolatzeko baliabide teknikoak (materiala, azpiegiturak...) eskaintzea

Adin-tartea: 6 – 30 urte

Azalpena:


Tolosako haur eta nerabeekin lan egiten duten aisialdi taldeek ondo baloratu zuten COVID-19aren garaian, etxealdiaren ondoren, udalak haiekiko izan zuen erantzuna: 2020ko udan, nerabe eta gazteentzako jarduerak antolatzeko herriko ekipamenduak utzi zituen, bertan haien jarduna garatzeko asmoz.

Balorazio positibo hori kontuan izanda, aurrerantzean ere ildo hori jarraitzea proposatzen da. Udalak, ahal duen neurrian, baliabide teknikoak utzi beharko lizkieke herriko eragileei: haur, nerabe eta gazteen eskaintza osoagoa eta indartsuagoa izate aldera. Horretarako modua eta arautegia zehaztu beharko da.

Eragileak:

- Tolosako Udaleko Gazteria arloa.
- Tolosako aisialdi, kultur eta kirol elkarteak

Lehentasuna



Jarraipenerako adierazleak

- Baliabide teknikoak uzteko prozesuaren berri eman zaien herriko elkarteei eta jasotako erantzun-maila.
- Udalaren baliabide teknikoen erabilera-maila eta balorazioa.

2. ARDATZA: Parte-hartzea, herritartasuna eta komunitatearekiko lotura sustatzea

2.1.HELBURU ESPEZIFIKOA: Erakunde publikoen eta batez ere, Udalaren funtzionamenduaren inguruan gazteek duten ezagupen faltari aurre egin eta erakunde horiek herritarren eta gazteen bizi-baldintzak hobetzeko duten garrantziaren inguruko sentsibilizazioa lantzea.

2.1.1.Ekintza: Administrazio-maila ezberdinen antolaketa eta funtzionamendua Tolosako nerabeei ezagutarazteko proiektu didaktikoa lantzea modu pilotuan

Adin-tartea: 13 - 18 urte

Azalpena:

Gazteek, oro har, distantzia handia sumatzen dute Administrazio publikoekiko eta horien funtzionamendurekiko. Oro har, ez dute horien funtzionamendua ezagutzen, urruti ikusten dituzte eta ez dute horiekin komunikatu eta euren premiak/eskaerak adierazteko bide egokirik ezagutzen.

Proposatzen den proiektu didaktiko honen bitartez egoera hori aldatu nahi da, Tolosako nerabeen artean, modu pilotuan, administrazio publikoen funtzioak ezagutu eta eskaintzen dituzten zerbitzuak erabiltzeko moduak azalduz eta esperimendatuz.

Proiektu didaktiko honen, elementu/fase desberdinak hartu behar ditu kontuan:

- Landu eta esperimendatu beharreko proiektu didaktikoa definitu eta diseinatzea: helburuak, edukiak, metodologia zehaztu eta horientzako euskarri fisiko nahiz digitalak
- Proiektu didaktikoa baliabideez hornitzeko eragileen inplikazioa lortzea: Udala, Foru Aldundia, Eusko Jaurlaritza, ..
- Komunikazioa eta inplikazioa: ikastetxe eta guraso elkarteena, nerabeekin harremanetan jarri eta proiektuan parte hartzeko kanalak finkatzea. Hasiera batean, Tolosako heziketa zentroek eskaintzen duten plataforma baliatzea plantetatzen da, nerabe gehienak bertan aurkitzen direlako eta didaktikarekin zerikusi zuzena dutelako.
- Proiektua aplikatu eta garatzeko giza baliabide teknikoak
- Proiektu pilotua ebaluatzeko metodologia eta horren.

Eragileak:

- Tolosako Udala
- Gipuzkoako Foru Aldundia
- Eusko Jaurlaritza (Hezkuntza Saila...)
- Tolosako Hezkuntza arloko eragileak: ikastetxeak, guraso elkarteak

Lehentasuna

Oso altua		Altua		Erdizka			Baxua		
10	9	8	7	6	5	4	3	2	1



Jarraipenerako adierazleak

- Parte hartu duen eragileen kopurua: ikastetxe kopurua, nerabe kopurua, administrazioetako ordezkarien kopurua
- Parte hartu duten eragileen ebaluazioa: asebetetze-mailari buruzko adierazle kuantitatiboak, nerabeei, proiektu teknikoki garatu duten teknikariei, asebetze inkestak eginez; adierazle kualitatiboak (aldatu/moldatu/egokitu beharreko alderdiak, eragile kualifikatuei elkarriketa sakonak eginez).

2.1.2. Ekintza: Urtero, Udaleko sail desberdinetako ordezkarien bisitak antolatzea ikastetxeetara

Adin-tartea: 13 - 18 urte

Azalpena:

Ekintza honen bitartez, gazteek Tolosako Udala gertuagotik ezagutzea bilatu nahi da, aurrez aurreko harremanen bidez, Udalaren eginkizunak eta zerbitzuak ezagutaraziz eta bertan ari diren pertsonen aurpegia jarri eta erreferentzia fisikoak eskaintzeko.


Ekintza hau burutzeko, ondorengo urratsak aurreikusten dira:

- Ekimen hau burutu aurretik, Udalak ikastetxeetan burutzen dituen gainerako ekintza eta programak kontuan hartu eta horiekin koordinatu/uztatu.
- Ikastetxeetara egingo diren bisita horien helburuak kontuan izanik, ikastetxeetan landuko diren gaiak, metodologia eta egutegia zehaztu, parte hartuko duten ikastetxeetako ordezkariekin elkarlanean.
- Bisita horietan parte hartuko duten Udaleko ordezkariak zehaztea, politikoak nahiz teknikoak. Kasu honetan, garrantzitsutzat jotzen da, Gazteria arloko ordezkariak ziurtatzea, gazteek Udalean erreferentziako zerbitzu eta pertsona bat izan dezaten: bisita horiek baliatu nerabeei Udalarekin harremanak izateko kanalak eta erreferentziak emateko.

Eragileak:

- Tolosako Udala: ordezkari politiko eta teknikoak. Batez ere, gazteria arlokoak
- Tolosako ikastetxeetako ordezkariak eta guraso elkarteak

Lehentasuna



Jarraipenerako adierazleak

- Ikastetxeetara Udaleko ordezkariak egindako bisita kopurua eta parte hartu duten Udal ordezkariak
- Egindako bisitetan parte hartu duen nerabe kopurua (bertaratuen kopurua)
- Ekintzak izandako ondorioak neurtzeko adierazleak: nerabeek egindako eskaera edo ekarpenak; ekimen horretan oinarrituta sortutako bestelako ekimen edo jarduerak.

2.1.3. Ekintza: Udalak haur, nerabe eta gazteei zuzenduta dituen ekipamendu eta zerbitzuen eskuliburua/karta sortzea eta horren zabalpena egitea: euskarri fisikoak (papera), elektronikoak (Udalaren web-orria eta sare sozialak)

Adin-tartea: 0 – 30 urte

Azalpena:

Helburua litzateke, Tolosako haur, nerabe eta gazteei zuzenduko zerbitzu eta ekipamenduen inguruko informazioa modu integral eta egituratu batean landu eta eskaintzea, horren bidez, ekipamendu eta zerbitzu horien ikuspegi orokorra izan eta horien erabilera errazteko. Zentzu honetan, karta honek, informatzeaz gain, zerbitzu eta ekipamendu horien erabilera erraztuko luke


Ekimen hau garatzeko, ondorengo urratsak proposatzen dira:

- Udal barruan, haur, nerabe eta gazteentzako ekipamenduak eta zerbitzuak identifikatzeko prozesua zabaldu eta horietako bakoitzaren ezaugarriak zehaztea. Horretako, funtsezkoa izango da Udaleko sail eta zerbitzu desberdinetako ordezkarien parte hartzea (teknikoak, politikoak)
- Identikatutako eta ekipamendu eta zerbitzuen zabalpenerako euskarriak zehaztu eta garatu: hasiera baten, bi euskarri mota nagusi aurreikusten dira: fisikoa bata (paperezko liburuxka, adibidez) eta telematikoa bestea. Kasu honetan, Udaleko web gunean kokatuta egon daitekeen gune edo eremu espezifiko bat izan daiteke. Horrez gain, Udaleko sare soziala ere erabil daitezke liburuxka elektronikoko horren zabalpenerako.
- Eskuliburu edo karta diseinatu eta editatu: euskarrien lanketa eta garapen teknikoa, formatu fisikoan (paperean) nahiz elektronikoan..

Eragileak:

- Tolosako Udaleko sail eta zerbitzu desberdinak, nahiz Udalaren menpeko erakundeak
- Eskuliburu/Kartaren diseinu eta garapen teknikoaz arduratuko diren enpresa edo erakundeak

Lehentasuna



Jarraipenerako adierazleak

- Editatu eta banatutako euskarri kopurua (kartaren ale kopurua)
- Kartaren euskarri elektronikoaren erabilera (web gunean, sare sozialetan): bisita kopurua, balorazioak (like kopurua, egindako iruzkin/ekarpen kopurua)
- Udaleko zerbitzu eta ekipamendu desberdinetako erabiltzaile kopuruetan atzemandako aldaketak: izandako inpaktua neurtze aldera.

2.1.4. Ekintza: Haur, erabe eta gazteentzako udal informazio gune bat sortzea (gazteentzako Udalaren erreferentzia izango dena) eta gune horren euskarri fisikoa (bulegoa) eta birtuala (webgunea) sustatzea

Adin-tartea: 0 – 30 urte

Azalpena:

Ekintza honen bidez, Tolosako haur, nerabe eta gazteen eta Udalaren arteko zuzeneko komunikazioa erraztu eta bideratuko duen zerbitzu iraunkor bat eskaini nahi da (informazio eskaerak eta kontsultak egiteko, zerbitzu eta laguntzen berri izateko, udal-izapideak egiten laguntzeko). Udalean, haur, nerabe eta gazteen erreferentziarako harreman-gunea izango litzateke: bertan gazteen eskaerak, zalantzak eta abarrekoak jaso eta horiei erantzuna emateko zerbitzua izango litzateke, kasu batzutan, gazte informazio-guneak berak zuzenean emanez, eta beste batzuetan, beste sail/zerbitzuekin edo herriko bestelako eragileekin bitartekaritza eginez. Zerbitzu hori, aurrez aurre nahiz modu elektronikoan ematea planteatzen da.

Ekimen hau garatzeko ondorengo alderdiak hartu behar dira kontuan:

- Zerbitzuaren diseinua burutu: eginkizunak zehaztu (helburuak, funtzionatzeko egutegi eta ordutegiak); baliabideak jarri (pertsonalak, fisikoak eta birtualak)
- Zerbitzua eskaintzeko sarea osatu: Udaleko gainerako sail eta zerbitzuekin, herriko bestelako eragileekin alor ezberdinetan (kultura, aisialdia, kirola, berdintasuna, gizarte laguntza, ingurumena, karrozak/konpartsak...)
- Zerbitzuaren euskarri fisikoa (bulegoa, pertsonala) eta birtuala antolatzea (Udal web gunearen egokitzapen teknikoak, udaleko sare sozialen egokitzapen eta dinamizazioa...)

Eragileak:

- Tolosako Udaleko Gazteria Zerbitzua, gainerako Udal sail eta zerbitzuekin koordinatuta.
- Tolosako herri elkarte eta erakunde desberdinak: kirola, aisialdia, kultura, gizarte laguntza, berdintasuna, ingurumea...
- Informazio gunearen euskarri elektronikoak garatu/egokitzeko zerbitzu teknikoak

Lehentasuna

Oso altua	Altua	Erdizka	Baxua						
10	9	8	7	6	5	4	3	2	1

✓

Jarraipenerako adierazleak

- Bulegotik pasatutako haur, nerabe eta gazte kopurua
- Bulegoan jasotako galdera, kontsultak, eskaera kopurua.
- Sortutako web gunean izandako bisitak, jasotako iruzkinak, galderak, proposamenak...
- Sare sozialetako jarraitzaile kopurua, like kopurua, egindako iruzkin kopurua.

2.2.HELBURU ESPEZIFIKOA: Udalaren eta haur, nerabe eta gazteen arteko komunikazioa eta parte hartzea sustatzeko kanal eraginkor eta iraunkorrak sortzea.

2.2.1.Ekintza: Tolosako Haurren Hiria egitasmoaren jarraipena eta zabalpena: haur gehiagok parte hartzeko aukera izan dezaten (adin tarte zabalagoa, ordezkaritza gehiago)

Adin-tartea: 8 - 16 urte

Azalpena:


Tolosako Haurren Hiria Programaren inguruko balorazioa, oro har, oso positiboa da, haurren parte hartzearen eta herritartasunaren sustapena, Udalarekiko harremanak eta udal politika lotzen dituelako.

Hala ere, Programa honen eragina eta inpaktua aregotzeko, garrantzitsua litzateke parte hartzen duten eragileen artean gogoeta egin eta egun duen hedapena zabaltzeko aukerak aztertzea: parte hartzen dutenen adina zabaltzea (15-16 urte arteko nerabeak kontuan hartuz); parte hartze saioetan haurren parte hartzea areagotzeko aukerak; parte hartzea sustatzeko dinamikak eta materialak egokitzea; geletako ordezkaritza zabaltzea...

Eragileak:

- Tolosako Udala: Gazteria Zerbitzua, Udaleko beste sail eta zerbitzuak
- Tolosako ikastetxeak (LH eta DBH-ko ikastetxeak)
- Arazi elkarte (Haurren Hiria Programaren gidaritza tekniko duen enpresa)
- Tolosako haur eta nerabeekin lan egiten duten enpresa eta elkarteak: Nura Gizarte elkarte (kale hezitzaileak); Kili-Kolo elkarte (Topaguneko begiraleak)

Lehentasuna



Jarraipenerako adierazleak

- Haurren Hiria programan parte hartu duten haur eta nerabeen kopurua (adinaren arabera); geletako ordezkaritza modura parte hartu duen haur eta nerabeen kopurua.
- Haurren Hiria programaren ebaluazioa: programaren alderdi desberdinen inguruan, ikastetxeetako koordinatzaileek egiten duten balorazioak
- Arazi lantaldeak programaren inguruan egiten duten balorazio orokorra.

2.2.2. Ekintza: Udaleko sail desberdinek (kirola, kultura, gizarte ongizatea, hirigintza...) eragileen parte hartzea bideratzeko sortuak dituzten mahai instituzional iraunkorretan, gazteen parte-hartzea integratzeko kanal/bitarteko espezifikoak ezarri, kudeatu eta jarraipena egitea

Adin-tartea: 12 – 30 urte

Azalpena:

Tolosako Udalak, mahai sektorial desberdinak ditu antolatuak, gizarte bizitzaren arlo desberdinetako udal politika, programa eta ekintzetan parte hartzen duten herri eragile desberdinekin kontrastu eta koordinatzeko. Mahai horietan, haur, nerabe eta gazteekin zerikusia duten programa eta ekimen desberdinen antolaketa eta jarraipena egiten da (Nerabeen Komunitatean Esku hartzeko Programaren Mahaia, Prebentzio Mahaia, Hezkidetzeta Mahaia, Kirol Mahaia...) baina duten izaera formal eta instituzionalarengatik, askotan gazteek ez dute parte hartzen edo oso modu puntualean egiten dute. Hortaz, euren iritzi, ekarpen eta balorazioak, sarritan, ez dira kontuan hartzen.


Egoera horri aurre egiteko ondorengo prozesua burutzea proposatzen da:

- Tolosako mahai sektorial desberdinak identifikatu eta horietan parte hartzen duten eragileekin, nerabe eta gazteen parte hartzea eta ekarpenak txertatzeko garrantzia aztertu eta sustatzea.
- Mahai horietan, haur, nerabe eta gazteen parte hartzea sustatu eta txertatzeko moduak eta kanalak aztertzea. Zentzu honetan, garrantzi handikoa izan daiteke, haur, nerabe eta gazteekin zuzeneko harremana duten eragile desberdinen esperientzia eta ekarpenak kontuan izatea.
- Gazteria Zerbitzuak koordinatuta, haur, nerabe eta gazteen parte hartzea bideratzeko metodologia eta kanalak definitzea eta zabaltzea. Abiatzeko, haur, nerabe eta gazteei zuzendutako programek eskaintzen dituzten plataformak balia daitezke (Haurren Hiria, Tolosako Gazteen Topagunea, Nura elkarteak nerabe eta gazteekin kudeatzen dituen programak; Udalak, ikastetxeetan burutzen dituen Programa desberdinak...)

Eragileak:

- Tolosako Udala eta bertan sortuak dauden Mahai sektorial desberdinak, Komunitate eta Gobernantza eta Gazteria Zerbitzuaren koordinaziopean.
- Mahai sektorial desberdinetan inplikaturik dauden eragile publiko eta pribatu desberdinak: Nura Elkarteko, Kili-Kolo elkarteko, Arazi lantaldeko begirale, kale hezitzaile nahiz dinamizatzaileak; haur, nerabe eta gazteekin lan egiten duten herri elkarte eta taldeak, ikastetxeak, guraso elkarteak...
- Haur nerabe eta gazteak biltzen dituzten taldeak eta ekimen antolatuak: Inauterietako karrozak eta txarangak, gazte lokalak, musika taldeak, kirol taldeak...

Lehentasuna



Jarraipenerako adierazleak

- Udalaren mahai sektorial desberdinetan, nerabe eta gazteen parte hartzea errazteko burututako ekintzak eta zabaldutako kanalak
- Mahai sektorial desberdinetan, gazteen parte hartzea sustatzeko zabaldutako kanalak desberdinak (bilerak, tailerrak, eztabaida taldeak, plataforma elektronikoak...) eta horietan parte duten gazteen kopurua
- Mahietan parte hartzen duten eragile desberdinek (publikoak, pribatuak eta parte hartu duten gazteek) gazteek izan duten parte hartzeari buruz egiten duten ebaluazioa (gogobetetze inkesten bidez)

2.2.3. Ekintza: Tolosako Udalak, proiektu eta egitasmo desberdinen inguruan zabalduko parte-hartze prozesu irekietan, haur, nerabe eta gazteen parte-hartzea espezifikoki sustatu eta egindako proposamenen jarraipen sistematikoa egin eta egoera komunikatzea (kudeaketa egoeraren inguruko informazioa itzultzeko protokoloa zehaztuz)

Adin-tartea: 8 – 30 urte

Azalpena:

Zenbait gaztek Udalak burututako zenbait proiektu eta ekimenetan parte hartu dute, Udalak berak egindako eskaerari erantzunez. Gazte horien sentsazioa da parte hartze horren ondorioak eta emaitzak ez direla ikusten eta ondorioz, parte hartze horrek sinesgarritasuna galtzen du, ez duelako eraginkortasun nahikorik.


Hortaz, herritarren eta batez ere gazteen parte hartzean oinarritutako prozesuen inguruan, parte hartze horren emaitzen jarraipena egiteko eta burututako kudeaketaren inguruko informazioa gazteei itzultzeko konpromisoa hartzea proposatzen da, parte hartzearen jarraipen protokolo bat ezarriz.

Protokolo hori, Udaleko sail desberdinek onartu eta jarraitu beharko lukete. Protokolo horretan, parte hartze prozesu bat zabalduz gero, jarraitu beharreko urrats nagusiak finkatuko lirateke, gazteek parte hartze horren emaitzen berri izan eta jarraipena egin ahal izateko: jasotako proposamenak aztertzeko epeak finkatu; proposamen horien aurrean Udalak hartutako erabakiak zehaztu (onartutakoak, egokitu/moldatu beharrekoak, burutu ezin direnak) eta horien atzetik dauden arazoak gazteei komunikatzeko sistema zehaztea; burututako parte hartze prozesuaren inguruan gazteek egiten duten balorazioa jasotzea (gogobetetze inkestean bidez).

Eragileak:

- Tolosako Udala (Udaleko sail desberdinak, Komunitate eta Gobernantza eta Gazteria Zerbitzuaren koordinaziopean)

Lehentasuna



Jarraipenerako adierazleak

- Udalak bultzatutako parte hartze prozesuen ondorioz egindako ekarpen eta ekimen desberdinen inguruan hartu diren erabaki zehatzak eta horiek komunikatzeko erabili diren kanalak
- Parte hartze prozesuetan jasotako proposamenak kudeatu eta erabakiak hartzeko, Udalak behar izan duen denbora tartea (erabakiak hartzeko epea)
- Parte hartze prozesuetan parte hartu duten gazteen balorazioak, gogobetetze inkesta eta bilera kualitatiboen bidez jasoak.

2.2.4. Ekintza: Nerabeen parte hartze egituratua sustatu eta Udalaren kudeaketarekin uztartzeko, heziketa zentroen bidez bideratuko litzatekeen parte hartze egitasmoa lantzea

Adin-tartea: 12 - 18 urte

Azalpena:


8-12 urte arteko ikasleei zuzendutako Tolosako Haurren Hiria programa oso ondo baloratzen da haur horien artean parte hartzearen kultura eta herritartasuna sustatzen laguntzen duelako, ikastetxeek eskaintzen duten plataforma baliatuz. Hala ere, hurrekin burutzen den programa honek ez du jarraipen egokirik 12 urtetik gorako nerabeen artean eta hortaz, parte hartzearen eta herritartasunaren aldeko jarrera eta jokabideak lantzen jarraitzeko aukera eten egiten da.

Hortaz, Tolosako Nerabeen Hiria izena izan dezakeen programa diseinatu eta garatzea planteatzen da, DBH, Batxilerra eta Lanbide Heziketa ematen duten Tolosako zentroekin elkarlanean. Horretarako, ondorengo prozesua jarrai daiteke: egun, Tolosako Haurren Hirian parte hartzen duten eragile desberdinen arteko kontrastea egin, Nerabeen Hiria programa aurrera eramateko aukera baloratu eta horretako baldintzak eta baliabideak finkatzeko; programa garatzeko metodologia egokitu (gaiak, dinamizazio teknikak, euskarriak eta materialak, parte hartuko duten nerabeen ezaugarrietara egokitu)

Eragileak:

- Tolosako Udala: Komunitate eta Gobernantza Sailaren eta Gazteria Zerbitzuaren gidaritzapean
- Tolosan DBH, Batxilerra eta Lanbide Heziketa ematen duten zentroak: zentroetako langileak eta guraso elkarteak
- Arazi Elkartea (Haurren Hiria Programa garatzen ari den enpresa)

Lehentasuna



Jarraipenerako adierazleak

- Tolosako Nerabeen Hiria Programa aurrera eramateko burututako lana: bilerak, parte hartu duten eragileak eta erakutsitako jarrerak
- Haurren Hiria Programa Nerabeen ezaugarrietara egokitzeko egindako egokitzapen metodologikoak: nerabeen parte hartzea dinamizatzeko tekniketan, dinamizazioa lantzeko euskarri eta materialetan
- Nerabeen Hiria Programaren aplikazioan parte hartu duten eragile kopurua: heziketa zentroak eta irakasle ordezkariak, ikasle kopurua
- Nerabeen Hiria Programaren inguruko ebaluazioa (parte hartu duten eragile nagusien gogobetetze inkestaren bidez).

2.2.5. Ekintza: Gazteen parte-hartze zabala, iraunkorra eta eraginkorra sustatzeko sistema diseinatu, gazteengana hurbiltzeko guneak-eragileak eta kanalak zehaztu

Adin-tartea: 12 – 20 urte

Azalpena:

Tolosako Udalaren sail desberdinetan, nerabe eta gazteekin komunikatu eta euren parte hartzea ahalbidetu eta errazteko sistema baten gabezia nozitzen dute: gazteekin komunikatu eta euren premia, behar eta proposamenak ezagutu eta kontrastatzeko kanal iraunkor eta antolatuturik ez dago. Parte hartzea dagoenean, maiz puntuala eta sektoriala izaten da, Udaleko sail desberdinetan sortzen diren premien arabera eta izaera insituzionala duena (zurrenedia, formalegia). Horrez gain, ez da lortzen nerabe eta gazteen parte hartze zabala (sarritan, gutxi izaten dira hartzen duten gazteak eta maiz pertsona berdinak dira parte hartze prozesu desberdinetan parte hartzen dutenak)


Gabezia horri aurre egiteko, nerabe eta gazteekin komunikatu eta euren parte hartzea errazteko sistema diseinatu eta irekitzea proposatzen da. Sistema hori nerabe eta gazteen ezaugarrietara egokitu behar da. Horretarako, ondorengo ardatzek osatutako parte hartze sarea osatzea proposatzen da:

- Nerabe eta gazteen bilgune diren espazio eta eremuak identifikatu eta bertan, euren ekarpen eta parte hartze sustatzeko kanalak zabaltzeko behar dira. Gutxienez, ondorengoak dira kontuan izan behar diren eremu eta eragileak: ikastetxeak; kirol eta kultur elkarte eta taldeak; Gazteen Topagunea; Karrozak eta Konpartsak; Gazte lokalak; programa desberdinak garatzeko nerabe eta gazteekin ibiltzen diren kale-hezitzaileak; kirol guneak (kiroldegia).
- Aipatu eremu horietan, bi motatako parte hartze modu aurreikusi eta ahalbidetu behar dira: batetik, haur eta nerabeek modu espontaneoan, edozein momentutan egin ditzaketen ekarpen eta proposamenak jasotzeko aukera emango duena; eta bestetik, Udalak egitasmo edo proiektu zehatzen inguruan, gazteen iritzi eta ekarpenak jasotzeko aukera emango duena. Kasu honetan, gazteekin harremanetan dauden bitartekarien funtzioa garrantzitsua izango da, parte hartze hori antolatua izango delako (begirale, teknikari, dinamizaitzaileen bitartez)
- Eremu eta parte hartze modu desberdinen ezaugarriak kontuan izanik, parte hartzeko kanal desberdinak zabaltzeko behar dira: aurrez aurreko bilera eta topaketak (formal nahiz informalek); proposamen idatziak jasotzeko gune fisikoak (buzoiak); ekarpen eta proposamenak modu telematikoan jasotzeko kanal elektronikoak (udalaren web orrian, sare sozialen bidez; whatsapp taldeen bidez...)

Eragileak:

- Udaleko sail desberdinak, Komunitate eta Gobernantza Sailaren eta Gazteria Zerbitzuaren gidaritzapean
- Gazteen bilgune nagusiak: ikastetxeak, kirol eta kultur elkarteak, gazte lokalak, Gazteen Topagunea, kale hezitzaileen bidez burutzen diren programetan parte hartzen duten gazteak
- Gazteekin komunikatzeko euskarri fisiko eta birtualen kudeaketa teknikoak eta parte hartze prozesu kualitatiboaren dinamizazioak (gazteen eztabaida taldeak, foroak, tailerrak...) arduratuko diren lantalde teknikoak

Lehentasuna



Jarraipenerako adierazleak

- Burututako parte hartze prozesu desberdinak eta gazteen parte hartzea ahalbidetzeko aplikatu diren tekniken kopurua (teknika desberdinak eta horietako bakoitza zenbat aldiz aplikatu den)
- Aurrez aurre burutu diren parte hartze saioetan (bilera, eztabaida talde, tailerretan...), parte hartu duen gazte kopurua
- Baliabide elektronikoen bidez, parte hartu duen gazte kopurua (bisita, like kopurua, iruzkin kopurua...)
- Parte hartzeko kanal desberdinen bidez, jasotako ekarpen eta proposamen kopurua
- Jasotako proposamenen eraginkortasuna: onartutakoak, egokitu/moldatutakoak, baztertuak

2.2.6.Ekintza: Gazteen parte-hartzearen panela osatzea (18-30 urte arteko gazteek osatua)

Adin-tartea: 18 - 30 urte

Azalpena:

Beriziki zaila da 18-30 urte arteko gazteen inplikazioa eta parte hartzea lortzea, besteak beste, nerabegarora arte, bilgune izan diren eremu antolatuetatik ateratzen direlako (herriko ikastetxeak, eskola orduz kanpoko jarduerak, Gazte Topagunea, kirol taldeak...) eta herritik ateratzeko ohiturak/beharrak ere aregotu egiten direlako (ikasketak edota lana tarteko)

Hortaz, gazte hauen parte hartzea sustatu eta euren premia, behar eta proposamenak kontuan izateko, 18-30 urte arteko gazteen panel iraunkor bat osatzea proposatzen da, denbora tarte baterako (2 urterako adibidez)

Panel hori osatzeko, aukera bi aukera aurreikusten dira: batetik, Gazteria Zerbitzuak eta Komunitate eta Gobernantza Sailak dituzten erreferentziak eta kontaktuak baliatzea (elkarteak, taldeak, pertsona zehatzak...), gazte horiekin harremanetan jarri eta panela osatzeko. Bestetik, Tolosaten partaidetza prozesuan Herritarren Batzarra osatzeko erabilitako metodologiaren antzekoa erabiltzea: Tolosako 18-30 urte arteko gazteei gutun bat bidali, osatuko den paneleko partaide izateko izena emateko aukera emanaz. Ondoren, izena eman duten gazteen ezaugarriak kontuan izanik, horien arteko zozketa aleatorioa egingo litzateke, honako aldagaiak kontuan hartuz: adina, sexua eta jarduera nagusia. Horrela, panela osatzen duten gazteek, herriko gazteen ezaugarri soziodemografikoak modu egokian ordezkatzeko dituztela ziurtatu nahi da.

Panel horretan 30 gazte inguruk parte har dezatekela aurreikusten da. Panel hori, aldizka kontsultatu daiteke, Udalak dituen proiektu eta ekimen desberdinen inguruan gazteek dituzten iritzi eta proposamenak kontuan hartzeko. Horren truke, Udalak, parte hartze prozesuaren ondorioz hartzen diren erabakiak eta horiek justifikatzeko erabilitako argumentuak gazteei jakinarazi eta eurekin kontrastatzeko konpromisoa hartuko luke.

Eragileak:

- Tolosako Udala (Komunitate eta Gobernantza Saila eta Gazteria Zerbitzua)
- 18-30 urtetik gorako gazteen artean, panelean parte hartzeko prest agetzen direnak (gehienez 30)

Lehentasuna

Oso altua	Altua	Erdizka	Baxua						
10	9	8	7	6	5	4	3	2	1

✓

Jarraipenerako adierazleak

- Panelean parte hartzeko prest agertu diren gazteak
- Gazteen ekarpenak eta parte hartzea sustatzeko, Paneleko gazteekin burututako saio/dinamika kopurua
- Paneleko gazteekin burututako dinamiketan, jasotako ekarpen eta proposamen kopurua.
- Jasotako proposamenen eraginkortasuna: onartutakoak, egokitu/moldatutakoak, baztertuak

2.3.HELBURU ESPEZIFIKOA: Haur, nerabe eta gazteen herritartasuna eta komunitatearekiko lotura areagotzeko sentsibilizazioa sustatzea.

2.3.1.Ekintza: Haur, nerabe eta gazteen interes, jarrera eta parte-hartzearen inguruko ikerketa integrala burutzea (inkesta kuantitatiboa eta lantalde kualitatiboak)

Adin-tartea: 0 – 30 urte

Azalpena:

Tolosako haur, nerabe eta gazteen interesak eta parte hartzearen inguruan erakusten dituzten jarrerak aztertzea planteatzen da. Ikerketa hau, burututako diagnostiko eta plana haur, nerabe eta gazteen artean zabaltzeko, eurekin modu sistematikoan kontrastatzeko eta euren parte hartzea sustatzeko erabiliko litzateke.


Horretarako, batetik, informazio kuantitatiboa jasoko litzateke, kolektibo zabal honen lagin adierazgarri bati zuzendutako inkesta prozesu zabal baten bitartez, eta bestetik, informazio kualitatiboa jasoko litzateke, eztabaida eta elkarrizketen bidez.

Inkestatze-prozesua burutzeko, aukera metodologiko desberdinak konbina daitezke: batetik, haur eta nerabeen lagina, ikastetxeen arabera diseinatu daiteke eta ikastetxeetako geletan burutu; bestetik, 18 urte eta gehiagoko gazteen lagina, etxebizitzetara modu aleatorioan deitu, bertan gazterik bizi den galdetu eta prest badaude, galdesorta beteko litzateke telefono bidezko elkarrizketa bidez).

Eragileak:

- Tolosako Udala (hasiera batean, Gazteria zerbitzua)
- Tolosako ikastetxe eta ikasketa zentroak
- Ikerketa burutzeaz arduratuko den lantalde teknikoa

Lehentasuna



Jarraipenerako adierazleak

- Haur, nerabe eta gazteen artean burututako inkesta kopurua
- Aplikatutako teknika kualitatiboak eta horietan parte hartu duten haur, nerabe eta gazteen kopurua.
- Planaren garapenean haur, nerabe eta gazteen parte hartzea sustatzeko proposatutako ekimenak eta jarduerak.

2.3.2. Ekintza: Tolosan lan boluntarioa eta herritartasuna sustatzeko burutzen diren jardueren azterketa egin eta horiek sustatzeko programa lantzea: Gazteen Boluntarioria Azoka; ekipamenduak berreskuratzeko auzolaneko esperientziak; Foru Aldundiaren Zaletu Programa

Adin-tartea: 12 – 30 urte

Azalpena:

Tolosan herritartasuna eta herrigintza sustatzeko komunikazio eta sentsibilizazio ekimen desberdinak burutzen dira: Gazteen Boluntarioria Azoka; ekipamenduak berreskuratzeko auzolaneko esperientziak; Foru Aldundiaren Zaletu Programa.


Helburua litzateke, nerabe eta gazteen artean horiek duten notorietatea (ezagutza-maila), eragiten duten interesa eta daukaten eragin praktikoa (nerabe eta gazteen parte hartzearen aldeko jarrerak) bultzatzea.

Horretarako, nerabe eta gazteen artean boluntarioria eta parte hartzea sustatzeko burutzen diren komunikazio eta promozio ekimen guztiak identifikatu eta horien azterketa integral bat egitea proposatzen da, batez ere, gazteen interesa pizteko daukaten gabeziak eta ahuleziak zehazteko. Horren bidez, ekimen eta proiektu horien ezagupena areagotu eta horietan parte hartzeko interesa modu integralean sustatu nahi da, euren artean egon daitezkeen sinergiak baliatuz eta sentsibilizazioa lantzeko programa bateratu batean integratuz

Eragileak:

- Tolosako Udala (Gazteria Zerbitzuaren gidaritzapean)
- Parte hartzea eta herritartasuna sustatzeko programa eta ekimenak antolatu eta bultzatzen dituzten eragileak: Gipuzkoako Foru Aldundia (Zaletuz Programaren kasuan), herriko gizarte laguntza eta arlo sozialeko elkarte eta eragileak (Gazteen Boluntarioria Azokan parte hartzen dutenak), ekipamenduak berreskuratzeko auzolaneko esperientziak antolatzen dituzten erakundeak
- Azterketa burutu eta jarduera horiek sustatzeko programa lantzeaz arduratuko den lantalde teknikoa

Lehentasuna



Jarraipenerako adierazleak

- Nerabe eta gazteen artean boluntarioria eta parte hartzearen inguruko sentsibilizazio lantzeko ekimenetan parte hartzen duen nerabe eta gazte kopuruaren bilakaera.
- Nerabe eta gazteen artean boluntarioria eta parte hartzearen inguruko sentsibilizazioa lantzeko ekimenak antolatu eta bultzatzen duten erakundeek, ekimen horiek sustatzeko programaren inguruan egiten duten balorazioa (gogobetetze inkesten bidez)

3. ARDATZA: Bizi estilo osasuntsua, jasangarritasuna eta berdintasuna bultzatzea

3.1.HELBURU ESPEZIFIKOA: Haur, nerabe eta gazteen menpekotasun arriskuei aurre egiteko egungo egoera aztertzea eta izaera ezberdinetako jarduerak burutzea.

3.1.1.Ekintza: Tolosako haur, nerabe eta gazteen artean menpekotasuna eragiten duten kontsumoen inguruko azterketa burutzea, esku-hartze politikak egokitzeko: alkohola, edari energetikoak, bestelako sustantziak, jokia eta IKTak (Internet, sare sozialak)

Adin-tartea: 10 – 30 urte

Azalpena:

Tolosako gazteekin harremana duten helduentzat, bereziki, kezka-iturri dira haur, nerabe eta gazteengan menpekotasuna sortzen duten kontsumoak: alkohola, edari energetikoak, bestelako sustantziak, jokia edo IKTak, besteak beste. Horien inguruko zenbait hausnarketa jasotzen ditu azterlan honen diagnostikofaseak, baina gehiago sakondu beharra dago, esku-hartzeak zehatzak eta eraginkorrak izan daitezten.

Horretarako, azterketa espezifikoago bat egitea egokia izan daiteke. Ondorengo galderi erantzungo liokeena:

- Zein dira menpekotasuna eragiten duten kontsumorik zabalduenak Tolosan?
- Zein dira adin-tarte zaurgarrienak? Eta zein arrisku-taldeak?
- Nola eta noiz izaten dira kontsumo horiek? Zein lekutan?...
- Zeintzuk dira identifikatutako arazoei aurre egiteko jorratu beharreko lan-ildoak eta ekintzak?


Azterlan hau Gizarte Ongizateko arloarekin zein Nura elkarteko kale-hezitzaileekin elkarlanean egin beharko litzateke.

Tolosan abian jarri den Tokiko Adikzioen diagnostikoa jarri da martxan 2025. urteari begira. Urte horretan, diagnostiko hau eta ekintza honetan proposatuko azterketaren emaitzak uztartzea proposatzen da.

Eragileak:

- Tolosako Udaleko Gazteria eta Gizarte Ongizatea arloak.
- Tolosako Udaltzaingoa.
- Gazte Topagunea
- Gizarte arloko eragileak.
- NURA elkartea (kale hezitzaileak)
- Kanpo-aholkularitza enpresa bat.

Lehentasuna



Jarraipenerako adierazleak

- Azterlanaren irismen-maila eta emaitzak.
- Esku-hartzeak proposatzeko erabilgarritasun-maila.
- Azterlanean parte hartu duen eragile kopura

3.1.2. Ekintza: Udalaren prebentzio mahaiak sustatuta, alkoholaren gehiegizko kontsumoaren arriskua gutxitzeko aplikatzen diren esku-hartzeen jarraipena eta egokitzapena

Adin-tartea: 14 - 25 urte


Azalpena:

Gazteengan drogen eta alkoholaren kontsumoak izan ditzakeen arriskuen aurrean, udalak prebentzio plana du. Gainera, Prebentzio mahaitik bideratzen dira hainbat neurri: adibidez, inauterietan kale heziketan eta udaltzainen kontrolean oinarritutako kaleko esku-hartzea burutzen da duela urte batzuk. Oraindik ere lanketa horrekin jarraitzeko eta beste zenbait neurri aztertzeko beharra antzeman da, bereziki, inauterietan -karroza batzuk taberna ibiltari bihurtzen dira-. Hori horrela, egoeraren diagnosi bat egin, egungo neurriak baloratu eta egokitzeko lanketa egin beharko litzateke.

Eragileak:

- Tolosako Udaleko Gazteria, Jaiak eta Gizarte Ongizatea arloak, eta Udaleko Prebentzio Mahaia.
- Tolosako Udaltzaingoa.

Lehentasuna



Jarraipenerako adierazleak

- Prebentziorako esku-hartzeen irismen-maila
- Esku-hartze espezifikoko kopurua eta izandako eragina
- Prebentzio mahaiaren balorazioa

3.1.3. Ekintza: IKTen kontsumoak izan ditzakeen arriskuei aurre egiteko formazio-ekintzak antolatzea (tailerrak, hitzaldiak, solasaldiak): gurasoentzako eta haur-nerabeentzako

Adin-tartea: 10 – 18 urte

Azalpena:

Informaziorako eta komunikaziorako teknologia digitalak indar handiz sartu dira herritarren bizitzara; erabilera guztiz orokortua dago. Oro har, erabiltzaile guztiengan, bai helduengan, baita gazteengan ere, eragin dezaketen arriskuak sor ditzake, eta beraz, hura prebenitzeko neurriak hartzea ezinbestekoa da.


Oro har, teknologien inguruko heziketa falta dela uste dute tolosarrek: nerabe eta gazteek, teknologiak erabiltzen ikasi eta arriskuez jabetzeko; eta guraso eta helduek, egoera kudeatu eta kontrolatu, eta gazteei tresnak eskaini ahal izateko.

Helburu horrekin udalak formazio-ekintzak antolatzea proposatzen da, bai gurasoentzako, eta bai haur-nerabe-gazteentzako. Formazio-ekintza horiek forma ugari izan ditzakete: tailerrak, hitzaldiak, solasaldiak... izan daitezke; xede-taldearen arabera izango da.

Eragileak:

- Tolosako Udaleko Gazteria, Hezkuntza, Kirol eta Gizarte Ongizate arloak
- Tolosako ikastetxeak
- Treba gurasoak
- Tolosako guraso elkarteak
- Tolosako haurrak eta nerabeak.

Lehentasuna



Jarraipenerako adierazleak

- Antolatutako formazio-ekintza kopurua.
- Formazio-ekintzetako parte-hartzaile kopurua.
- Parte-hartzaileen asebetetze-maila.

3.1.4. Ekintza: Gehiegizko kontsumoari aurre egiteko, asteburuetakoko jarduera alternatiboen programa sustatzea (kontsumorako momentuetan eta horren ondoren ere): kuadrillen arteko jolasak eta kirol ez lehiakorra egokitutako espazio/ ekipamendu publikoetan; alkoholik gabeko festak; zaletasunak esperimentatzeko tailerrak; mendi irteerak eta txangoak...

Adin-tartea: 16 – 20 urte

Azalpena:


Azterketaren ondorioetako bat da Tolosan ez dagoela gazteei zuzendutako kontsumorik gabeko aisialdi eskaintzarik, eta bereziki, asteburu gehien-gehienak tabernaren eta kontsumoaren bueltan antolatzen dituztela. Hortaz, jarduera alternatiboen programa sustatzea proposatzen da: kuadrillen arteko jolasak eta kirol ez-lehiakorra egokitutako espazio eta ekipamendu publikoetan; alkoholik gabeko festak; zaletasunak esperimentatzeko tailerrak; mendi irteerak eta txangoak; urte osoko auzolandegiak antolatzea...

Programazioa gazteekin beraiekin elkarlanean egingo da, Gazte Topaguneko gazteekin zein saio irekien bidez. Herriko eragileen jarduerak ere gehituko dira, horiek baitira gazteen artean arrakasta gehien izaten dutenak.

Eragileak:

- Tolosako Udaleko Gazteria arloa.
- Gazte Topaguneko hezitzaileak eta erabiltzaileak
- Tolosako gazteak
- Tolosako kultur, kirol eta aisialdi elkarteak.

Lehentasuna



Jarraipenerako adierazleak

- Programa osatzeko egindako bilera kopurua.
- Programaren osaeran parte hartu duten eragileen zein gazteen kopurua.
- Antolatutako ekintza kopurua eta asebetetze-maila.

3.2.HELBURU ESPEZIFIKOA: Berdintasuna eta gizarte integrazioa zentzu zabalean sustatzea haur, nerabe eta gazteen artean, bai generoaren, bai jatorriaren ikuspegitik.

3.2.1.Ekintza: Haur, nerabe eta gazteen artean, genero berdintasunaren inguruko sentsibilizazioa lantzeko burutzen diren jardueri jarraipena ematea eta ebaluatzea (Hezkidetza programa)

Adin-tartea: 6 – 16 urte

Azalpena:


Tolosako Udalak urteak daramatza genero berdintasunaren gaia lantzen haur eta nerabeekin. Hein handi batean, ikastetxeen bitartez egin du: 2012tik Hezkidetza Proiektua du eta proiektua koordinatzeko Hezkidetza Mahaia dago sortua ikastetxeekin. Gaiaren bueltan harreman egonkorra sortu da ikastetxeen eta udalaren artean, eta hainbat esparrutan eragiteko aukera eman du (Eskola Kirolaren programan, adibidez). Kasu batzuetan, gainera, gazteen kontzientzia pizteko eta aktiboagoak izateko balio izan du.

Etengabeko berrikuspena eta egokitzepena duen programa da, eta 2022-2023 ikasturtean ikasleengan ez ezik, gurasoengan zen irakasleengan eragitea da asmoa. Pixkanaka, beraz, Hezkidetza Programa egokitu egiten da egoera zein behar berrietara. Horregatik guztiagatik, programari jarraipena ematea eta etengabeko ebaluazioan jarraitzea egokitzat jotzen da. Programa eraginkorra izate aldera, ebaluazioaren araberako egokitzapenak egin beharko zaizkio: unean uneko arazoak identifikatzeko eta haiei erantzuteko.

Eragileak:

- Tolosako Udaleko Berdintasun, Gizarte Ongizatea eta Gazteria arloa
- Tolosaldeko Migrazio teknikaria
- Tolosako ikastetxeak
- Tolosako aisialdi taldeetako ordezkariak
- Gazte Topaguneko hezitzaileak.

Lehentasuna



Jarraipenerako adierazleak

- Hezkidetza Programaren barruan egindako esku-hartze kopurua eta izandako inpaktua.
- Hezkidetza Mahaiaren bilera kopurua eta eragileen inplikazio-maila.
- Hezkidetza Mahaiaren balorazioa.

3.2.2. Ekintza: Kirolean neska gazteen jarduera sustatzeko programa integrala lantzea: egungo kirol praktika desberdinak aztertu; nesken kirol praktika zabaltzeko oztopo eta aukerak identifikatu; nesken arteko kirol praktika areagotzeko neurriak proposatu

Adin-tartea: 8 – 30 urte

Azalpena:

Pixkanaka, emakumezkoak protagonismoa eta ikusgarritasuna ari dira hartzen kirolean, eta gutxi batzuk badira ere, neska gazteek badituzte erreferenteak –Tolosa mailan arrauneko neskek, adibidez–. Beste zenbait faktoreekin batera, honek ere lagundu du neskek kirolean duten parte-hartzean: nesken artean kirola egitea normalizatuagoa dagoen heinean, haien presentzia ere areagotu baita. Dena den, oraindik ere parte-hartzea ez dago orekatuta, hori horrela, Tolosako neska gazteen jarduera sustatzeko programa integrala garatzea proposatzen da.

Horren aurretik, egungo egoeraren diagnosi bat egitea aurreikusten da, hiru urratsetan:

- Tolosako herrian egun egiten diren kirolak azterzea, genero ikuspegia ere txertatuz: emakumezkoen parte-hartzea eta haren bilakaera, zer-nolakoa den parte-hartze hori, etab.
- Behin egungo egoera aztertuta, kirol praktika horiek zabaltzeko oztopoak eta aukerak identifikatuko dira.
- Bukatzeko, hori guztia kontuan izanda, kirol praktika areagotzeko neurriak proposatuko dira eta horiekin osatuko da Tolosako neska gazteen artean kirola sustatzeko programa integrala.

Tolosako Udaleko Kirol arloak sustatuta egingo da lan hau, baina ezinbestekoa izango da Tolosako Kirol elkartearen, Ikastetxeen eta kiroldegia kudeatzen duen enpresarekin (egun, BPXsport) elkarlanean aritzea.

Eragileak:

- Tolosako Udaleko Kirol arloa
- Tolosako kirol elkarteak
- Tolosako ikastetxeak
- Kiroldegia kudeatzen duen enpresa
- Diagnostikoa eta Proposamenak egiteaz arduratuko den lantalde teknikoa

Lehentasuna



Jarraipenerako adierazleak

- Aztertutako kirol ezberdinen kopurua eta kirol bakoitzaren azterlanaren zehaztapen-maila.
- Proposatutako neurri kopurua eta horietatik zenbat gauzatu diren.
- Gauzatutako neurrien inpaktua eta asebetetze-maila.

3.2.3. Ekintza: Ongi Etorri programari zabalpen handiagoa emateko neurriak hartzea

Adin-tartea: 6 – 16 urte

Azalpena:

Tolosaldea Garatzen eskualdeko garapen agentziaren bidez Tolosaldera kanpotik iritsi berri diren 6 eta 16 urte bitarteko haur eta gazteei herri giroan murgiltzeko aukera eskaintzen zaie: Gazteak Ongi Etorri programa. Tolosaldeko herrietan eskaintzen da aukera, baina egun, hiru talde sortu dira: 6-9 urte bitartekoentzat Amasa-Villabonan, eta 8-12 eta 13-16 urte bitartekoentzat talde bana Tolosan. Tolosako kasuan, erronka da 6-9 urte bitartekoentzat taldea sortzea, multzo horretarako haur dezente dagoelako herrian.


Hori ez da programa honek duen erronka bakarra, adin-tarte horri zabaltearekin batera, programa bera indartu beharra antzematen da. Horretarako, zenbait neurri hartu beharko lirateke:

- Tolosaldea osoan taldeak sortzea ahalbidetzea, herrian integratzeko bitarteko gisa.
- Zabalpenerako kanalak indartzea. Egun bereziki ikastetxeen bitartez egiten den lana, beste zenbait esparrutara zabaltzea.
- Horretarako, taldekide kopurua txikitu behar bada, egoeraren arabera erabakitzea.
- Baliabideak handitzea programa eraginkorragoa izan dadin.

Eragileak:

- Tolosaldea Garatzeneko Migrazio teknikaria (sustatzailea)
- Tolosako Udaleko Gazteria eta Gizarte Ongizatea arloak.
- Tolosako ikastetxeak.
- Urtxintxa elkarte (programaren dinamizazioaren arduradunak).

Lehentasuna



Jarraipenerako adierazleak

- Gazteak Ongi Etorri programaren barruan Tolosan sortutako talde kopurua.
- Zabalpenerako baliaututako komunikazio-kanalak eta bakoitzaren eraginkortasun-maila.
- Programara bideratutako baliabideen bilakaera

3.2.4. Ekintza: Egoera zaugarrian dauden eta kanpotik iritsi berri diren haur, nerabe eta gazteen nahiz euren familien integrazioarako zerbitzu eta programa desberdinen jarraipena egitea horien eraginkortasuna areagotzeko

Adin-tartea: 0 – 30 urte


Azalpena:

Egoera zaugarrian dauden eta kanpotik iritsi berri diren haur, nerabe eta gazteen nahiz euren familien integrazioa ahalbidetzen duten zerbitzu eta programak eraginkorrak izan daitezten jarraipena behar dute: bai familiaz familiakoa, zein programa eta zerbitzuena, etengabeko ebaluazioaren bidez. Horretarako, baina, baliabideak behar dira, pertsonalak zein ekonomikoak. Hortaz, emaitza hobekak lortu nahi badira, baliabide gehiago beharko dira, besteak beste, zerbitzu integralago eta pertsonalizatuago bat eman nahi bada (aukera balego, migrazio teknikari bat izatea litzateke egokiena).

Eragileak:

- Tolosako Udaleko Gazteria eta Gizarte Ongizatea arloak
- Tolosaldea Garatzen Garapen agentzia

Lehentasuna



Jarraipenerako adierazleak

- Familia bakoitzarekin egindako jarraipenerako bilera kopurua.
- Familia bakoitzaren jarraipeneraren emaitzak.
- Programara bideratutako baliabideen bilakaera.

3.3.HELBURU ESPEZIFIKOA: Haur, nerabe eta gazteen artean jasangarritasuna sustatzea, tokiko produktu/zerbitzuen kontsumoa bultzatuz, bertako identitate kulturalaren ezaugarriak indartuz (batez ere, euskara) eta ingurumen ondareari balioa emanez.

3.3.1.Ekintza: Tolosako nerabe eta gazteen kontsumo eta erosketa ohiturak aztertzeo diagnostikoa egitea (herrian erosteko joera sustatzeko ekimenak diseinatu ahal izateko)

Adin-tartea: 16 - 30 urte

Azalpena:

Tolosako nerabe eta gazteen kontsumo eta erosketa-ohiturei buruzko diskurtsoak eta haiek joerak zein izan daitezkeen jaso da azterlan honen diagnostiko fasean. Baina gai honetan sakontzeko, ikerketa espezifikokoago bat egin beharko da: erosketa eta kontsumo-joerak, zergatik erosten duten herrian edo zergatik ez, zerk erakartzen dien gehien... Finean, Tolosako gazteen ikuspegitik kontsumitzerakoan erabakigarriak diren faktoreak zein diren aztertzeo eta ondoren, horren arabera, herrian erosteko joera sustatzeko ekimenak diseinatu ahal izateko baliagarria izango zaio, bai udalari berari, baita Tolosa&Co merkatarien elkarteari.

Eragileak:

- Tolosako Udaleko Merkataritza arloa
- Tolosa&Co elkarte
- Tolosako nerabe eta gazteak
- Ikerketa burutuko duen lantalde teknikoa

Lehentasuna



Jarraipenerako adierazleak

- Ikerketan parte hartu duten nerabe eta gazteen kopurua.
- Gazteentzat erabakigarriak diren faktoreak identifikatzerakoan horien zehaztapan-maila.
- Merkataritza sektorean izandako inpaktua: asebetetze-maila eta ea neurririk hartu ote duten.

3.3.2. Ekintza: Bertako produktuak eta azoka ezagutu eta bertako eskaintzari balioa emateko sentsibilizazio-ekintzak burutzen jarraitzea eta berriak garatzea, Azoka Lagunak proiektuaren baitan

Adin-tartea: 5 – 30 urte


Azalpena:

Azoka Lagunak proiektuaren bitartez Tolosako haur, nerabe eta gazteek herriko azoka ezagutzeko zenbait jarduera egiten dira urte osoan zehar: Babarrun ereitea, tailer familiarrak, bisita gidatuak... Sentsibilizazio-ekintza horiek egiten jarraitzea da asmoa, eta berriak garatzea. Horretarako, gazteen kontsumitzeko eta erosteko ohiturei buruz egindako ikerketa ere baliagarria izan daiteke, haien interesetara eta beharretara hobeto egokitzen diren ekintzak egiteko.

Eragileak:

- Tolosako Udaleko Merkataritza arloa
- Tolosako Azoka
- Tolosako haur, nerabe eta gazteak eta haien familiak

Lehentasuna



Jarraipenerako adierazleak

- Azoka Lagunak proiektuaren bitartez antolatutako ekintza kopurua eta horietatik zenbat diren berriak.
- Ekintza horietan parte hartu duten familia eta haur eta gazte kopurua.
- Ekintza horien asebetetze-maila eta balorazioa.

3.3.3. Ekintza: Tolosako merkataritza eskaintzaren komunikazioa hobetzea, gazteek erabiltzen dituzten kanaletara egokituz (sare sozialak, internet) notorietatea eta erakargarritasuna areagotzeko

Adin-tartea: 16 – 30 urte

Azalpena:


Herriko merkataritzaren hutsuneetako bat komunikazioan dagoela diote Tolosako gazteek: bertako denda eta establezimenduak ez dituzte erabiltzen gazteen komunikazio-kanalak (sare sozialak, internet...). Kanal horiek identifikatzeko eta horietarako mezu egokienak zein diren aztertzeko, kasu honetan ere, gazteen kontsumitzeko eta erosteko ohiturei buruz egindako ikerketa ere baliagarria izan daiteke.

Behin horiek identifikatuta, herrian establezimenduak dituztenei aholkularitza tekniko eta formakuntza espezifikoak eskaintzea aztertu beharko dute (batez ere, merkataritzaren digitalizazioaren arloan) Tolosako Udaleko Merkataritza arloak eta Tolosa&Co elkarteak elkarlanean. Formazio hori, Gipuzkoako Merkataritza Federazioak ematea aurreikusten da.

Eragileak:

- Tolosako Udaleko Merkataritza arloa
- Tolosa&Co elkartea
- Gipuzkoa Merkataritza Federazioa

Lehentasuna



Jarraipenerako adierazleak

- Tolosako merkataritza sektorearen sare sozialen eta interneten erabilera-maila.
- Tolosako merkataritza sektorearen sare sozialetan jarraitzaile eta atsegin dut kopurua areagotzen den.
- Tolosako merkataritzan eraginik izan duen: gazteengan irismen-maila.

3.3.4.Ekintza: Haur, nerabe eta gazteen artean euskararen erabilera sustatze aldera burutzen diren plangintza eta ekimenetan, hiru eremu edo lan-ildo nagusi lehenestea proposatzen da: euskararen aldeko motibazio afektiboa sustatzeko, aisialdi eremuko harremanetan euskara sustatzea; kanpotik iritsi berrien ikasketa-prozesua errazteko euskararen irakaskuntza indartzeko baliabide osagarriak eskaintzea; musika eta IKTen esparruetan, euskarazko sorkuntza bultzatzeko laguntzak bideratzea (dirulaguntzak, lehiaketak, topaketak, formazio-tailerrak...)

Adin-tartea: 0 – 30 urte

Azalpena:

Haur, nerabe eta gazteen artean herritartasuna, gizarte-kohesioa eta iraunkortasuna lantzeko euskarak garrantzi handia du, Tolosaren berezko ezaugarri bat izateaz gain, euskaren sustapenaren aldeko ekimen eta mugimenduetan haur, nerabe eta gazteen parte hartzea adierazgarria izaten delako eta sarritan protagonista izaten direlako (euskal musika sorkuntzan, bertsolaritzan, euskal produktuen eta ekitaldien kontsumoan...)


Gazteen arteko komunikazioa eta gizarte-kohesioa euskararen bidez sustatzen jarraitzeko, momentu honetan, hiru eremu nagusi horietan sustapen lana egiteak garrantzia duela ikusi da: euskararen aldeko motibazio afektiboa indartzeko aisialdi eremuko harremanetan euskara sustatzea; kanpotik iritsi berrien ikasketa-prozesua errazteko euskararen irakaskuntza indartzeko baliabide osagarriak eskaintzea; musika eta IKTen esparruetan, euskarazko sorkuntza bultzatzeko laguntzak bideratzea (dirulaguntzak, lehiaketak, topaketak, formazio-tailerrak...).

Eremu hauek garatzeko, garrantzitsua izango da haur nerabe eta gazteekin harremanak dituzten eragileekin elkarlanean jardutea (ikastetxeak, Gazte Topagunea, Aisialdi taldeak, kirol eta kultur taldeak, Galtzaundi elkarteak...) eta Tolosako Euskara Zerbitzuak burutzen dituen plangintza eta jardueretan ikuspegi hau kontuan izatea, beti ere, Gazteria zerbitzuarekin koordinatuta..

Eragileak:

- Tolosako Udaleko Euskara Saila eta Gazteria Zerbitzua.
- Tolosaldeako Galtzaundi elkarteak
- Gazte Topagunea
- Tolosako aisialdi, kirol eta kultur elkarteak

Lehentasuna



Jarraipenerako adierazleak

- Eremu hauetan egindako esku-hartze kopurua (ikuspegia txertatu duten plangintza jarduera kopurua, etab.).
- Lan-ildo honetan inplikaturako eragile kopurua.
- Elkarlanean aritzeko egindako bilera kopurua

4. ARDATZA: Emantzipazioa eta autonomia sustatzea: hezkuntza, enplegua eta etxebizitza

4.1.HELBURU ESPEZIFIKOA: Tolosako gazteen garapen pertsonal eta sozialerako aukerak areagotzeko, hezkuntza sistemaren funtzionamendua egokitu eta eskaintza osatzea, berdintasuna eta integrazioa ardatz hartuta.

4.1.1.Ekintza: Hezkuntza Mahaia sortzen denean, eskola-segregazioari aurre egiteko, EAEko Hezkuntza Lege berriaren aplikaziotik eratorritako ondorio sozialen jarraipena egiteko sistema diseinatu eta aplikatzea (etorri berrien/egoera zaurgarrian daudenen: presentzia udal ekipamendu/jarduera desberdinetan; herri elkarte/talde desberdinetan; kuadrilla desberdinetan...)

Adin-tartea: 3 - 16 urte

Azalpena:

Eskola-segregazioari aurre egitea da Euskal Autonomia Erkidegoko hezkuntza sistemak epe motzean duen eronketako bat. Hala aitortu dute aurten, Hezkuntza Lege berria idazteko adostutako Hezkuntza Itunean.

Norabide horretan, Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntza Lege berriaren aurreproiektuaren lehen zirriborroaren 38.6. artikulua ondorengo zehazten du:


6.- Udal Hezkuntza Kontseiluen bitartez, ikastetxeetan elkarbizitza-ereduak sustatu behar dira, eskola gizarte-ehunean txertatuko dutenak, eta hezkuntza-espazio horiek gizartearekiko etengabeko elkarreaginera zabalduko dira.

Hau da, tokian toki Udal Hezkuntza Kontseiluak sortuko dira, besteak beste, elkarbizitza-ereduak sortu eta eskola gizarte-ehunean txertatzeko. Badirudi, lege berriak tokian toki bizikidetzeta eta aniztasuna lantzeari garrantzia emango diola.

Legearen Aurreproiektuak proposatzen duen ildotik, Eskola-segregazioari aurre egiteko, EAEko Hezkuntza Lege berriaren aplikaziotik eratorritako ondorio sozialen jarraipena egiteko sistema sortzea eta aplikatzea proposatzen da. Aurreikuspena da jarraipen sistema hori, Tolosan sortuko den Hezkuntza Mahaiaren baitan burutuko dela. Bereziki proposatzen da, etorri berrien eta egoera zaurgarrian egoerari jarraipen zehatza egin eta horren aurrean neurriak hartzea: zer presentzia duten udal ekipamendu/jarduera desberdinetan; herri elkarte/talde desberdinetan; kuadrilla desberdinetan... Azken finean, bultzatu nahi dena da eskolak, eta baita ikasleak ere, gizarte-ehunean txertatzeko neurriak hartzea.

Eragileak:

- Tolosako Udaleko Hezkuntza, Gazteria eta Gizarte Ongizateko arloak (haur eta gazteekin ari diren begirale eta kale hezitzaileak: Nura elkartekoak, Gazteen Topagunekoak, Haurren Hiria programakoak...)
- Tolosako ikastetxeak.
- Tolosako Udal ekipamendu desberdinetako arduradunak (Kiroldegia, Udal Liburutegia, Udal euskaltegia, Kutur Etxea, Leidor Aretoa...)
- Tolosako ikastetxeetako guraso elkarteak.
- Herri elkarte desberdinetako ordezkariak (kirola, aisialdia, kultura, gizarte laguntza....).

Lehentasuna**Jarraipenerako adierazleak**

- Udal ekipamendu orokorretan burutzen diren ekintzetan (Kiroldegia, Leidor Aretoa, Musika Eskola, Liburutegia...), nahiz Udalak sustatuko jardueretan (Inauteriak, Jaiak, herritarren parte hartze prozesuak...) etorri berriak diren nahiz egoera zaurgarrian dauden haur, nerabe eta gazteen presentziaren bilakaera aztertzea (joaten/(bertaratzen direnen kopuruak)
 - Bereziki, Haur, Nerabe eta Gazteei bideratuko mota ezberdinetako ekipamendu nahiz programetan (ikastetxe desberdinak, Gazteen Topagunea, Haurren Hiria Programa...), etorri berriak diren nahiz egoera zaurgarrian dauden haur, nerabe eta gazteen presentziaren bilakaera aztertzea (joaten/(bertaratzen direnen kopuruak)
- Herri elkarte desberdinetan, bazkide nahiz partaide modura, etorri berriak diren nahiz egoera zaurgarrian dauden haur, nerabe eta gazteen presentziaren bilakaera aztertzea (bertaratzen direnen/ parte hartzen dutenen kopuruak)

4.1.2. Ekintza: Tolosan arte-batxilergo ikasketak eskaintzeko aukera aztertzea (unibertsitate aurreko irakaskuntza eskaintza osoa izateko) eta eskaera badago bideratzea

Adin-tartea: 16 - 18 urte

Azalpena:


Tolosak unibertsitate aurreko hezkuntza-eskaintza oso oparoa du. Eskaintza hori osatzeko, baina, batxilergoko adar bat falta da: artistikoa. Hutsune hau aipatu dute gazteek. Kontua lizatzeko, adar hau zabaltzeko eskaera nahikorik ote dagoen aztertzea eta, hala balitz, eskaera hori Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Sailera bideratzea (Udalak ez baitu hezkuntza eskuduntzarik).

Arteetako batxilergoa Tolosan -eskualde osoko ikuspegiarekin- eskaintzeko beharra eta aukeraren balorazioa eta ateratzen diren ondorioak bideratzeko ardura, Udala eta Tolosako hezkuntza komunitatea osatzen duten eragile desberdinen arteko lankidetzan oinarritu behar da.

Eragileak:

- Tolosako Udaleko Hezkuntza arloa.
- Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza arloa.
- Tolosako batxilergoko ikastetxeak.

Lehentasuna



Jarraipenerako adierazleak

- Tolosan arte-batxilergoko ikasketak eskaintzeko aukera aztertzeko burututako lanak (bilerak, azterketak, txostenak...) eta horietan parte hartu duten eragileak
- Tolosan arte-batxilergoko ikasketak eskaintzeko hartutako erabakiak eta neurriak: proiektua, finantziarioa eta diru laguntzak, proiektua gauzatzeko epea...

4.1.3. Ekintza: Ikastetxeetan euskara sustatzeko eta indartzeko neurriak hartzea, batez ere, kanpotik iritsi berrien euskararen ikasketa prozesua laguntzeko baliabide osagarriak handituz

Adin-tartea: 6 – 16 urte

Azalpena:

Azterketaren arabera, Tolosako zenbait ikastetxetan etorri berrien familien eragina nabarmena da: euskara ondo ez menperatzeak areagotu egiten ditu oztopo akademikoak eta batzuetan, eragina ikasgeletara zabaltzen da (gelak erdaldunduz, erritmo akademikoa motelduz), bereziki, DBHn.

Euskararen ezagutza faltak sor ditzakeen arazoak leuntze aldera, laguntza orduak dituzte ikastetxeek, udalaren eskutik. Dena den, ordu-kopurua eskasa omen da, eta euskararen ikasketan laguntzeko ordu horiek indartzea proposatzen da.

Haur eta nerabe iritsi berrien kolektiboentzako abian dauden Gazteak Ongi Etorri programan eta ikasketen errefortzurako zerbitzuan, euskara indartzeko neurriak eta baliabideak areagotzea proposatzen da.

Eragileak:

- Tolosako Udaleko Euskara eta Hezkuntza arloa.
- Tolosako ikastetxeak.

Lehentasuna

Oso altua		Altua		Erdizka			Baxua		
10	9	8	7	6	5	4	3	2	1
	✓								

Jarraipenerako adierazleak

- Euskaraz ikasteko laguntza orduetan izandako hazkuntzaren bilakaera (zenbat ordu gehiago eta horrek suposatzen duen hazkuntza)
- Eskainitako laguntza orduak baliatu dituzten haur eta nerabeen kopuruaren bilakaera

4.1.4. Ekintza: Lanbide Heziketako ikasketek lan merkatuan integratzeko eskaintzen dituzten aukerak sustatu eta ikasketa profesionalak aukeratzera dagoen genero arrakalari aurre egiteko sentsibilizazio ekintzak burutzea

Adin-tartea: 16 – 30 urte

Azalpena:


Lanbide Heziketa eskaintza oparoa du Tolosak, guztia D ereduan. Dena den, sustatu beharra dagoela uste da. Bereziki, bi norabidetan:

1. Batetik, lan-merkatuan integratzeko ikasketa-bide erakargarri moduan. Oraindik ere, ikasle goak nahiago izaten baititu unibertsitate-ikasketak. Lanbide Heziketak enplegutasa oso altua du, eta hori aprobetxatu beharra dago.
2. Bestetik, genero arrakalari aurre egiteko. Tolosan, bereziki, bi ikasketa-adar eskaintzen dira: ikasketa industrialak eta osasunari, eta bereziki, zaintzari loturikoak. Bi adar horien artean, genero bereizketa oso argia da: gizonetako ikasketa industrialak egiten dituzte, eta beraz, Tolosaldea Lanbide Heziketa Eskola oso maskulinizatuta dago; eta emakumeetako, aldiz, osasun arlokoak, Inmakulada Ikastola feminizatuz.

Eragileak:

- Tolosako Udaleko Gazteria, Hezkuntza eta Berdintasun arloak.
- Tolosako Lanbide Heziketako ikastetxeak

Lehentasuna



Jarraipenerako adierazleak

- Lanbide Heziketako ikasketen aukerak sustatu eta ikasketa horietan dagoen genero arrakalari aurre egiteko burututako sentsibilizazio ekintzak identifikatu eta karakterizatu: hitzaldiak, sentsibilizazioa lantzeko erabilitako euskarri mota desberdinak (kartelak, eskuorriak, liburuxkak...)
- Burututako sentsibilizazio ekintzen eragina estimatzeko kopuruak: hitzaldietara joandako pertsona kopurua, editatutako/banatuak euskarri mota desberdinen kopurua (kartelak, eskuorriak, liburuxkak...)
- Lanbide Heziketako ikasketetan matrikulatzen diren ikasle kopurua eta bilaera
- Lanbide Heziketako ikasketetan matrikulatzen diren neska eta mutilen kopuruaren bilakaera, eta matrikulatutako guztien artean neskek duten pisu erlatiboaren (proportzioaren) bilakaera

4.2.HELBURU ESPEZIFIKOA: Gazteen kalitatezko enplegua sustatzea eta laneratzea erraztea, besteak beste, egoera zaurgarrian daudenei eta ekintzaileei.

4.2.1.Ekintza: Tolosako enpresek gazteak kalitatezko baldintzetan kontratatzeko dirulaguntza lerroa sortzeko proposamena egitea

Adin-tartea: 18 – 30 urte


Azalpena:

Lanaren kalitatea da Tolosako gazteek lan-merkatuari buruz azaldu duten kezketako bat. Horren aurrean, udalak kalitatezko lana bultzatzea proposatzen da. Norabide horretan, neurrietako bat izan daiteke Tolosako enpresei gazteak kontratatzeko dirulaguntza lerroa sortzea. Betiere, kalitatezko baldintzak eskaintzen dituzten enpresak laguntzea da asmoa; besteak beste, kontratu mugagabeak egiten dituztenak

Eragileak:

- Tolosako Udaleko Gazteria eta Ekonomiaren Sustapena arloak.
- Tolosaldea Garatzen Garapen Agentzia
- Tolosako enpresetako ordezkariak

Lehentasuna



Jarraipenerako adierazleak

- Dirulaguntza lerroa sortzeko burututako lanak (bilerak, azterketak...), lan horietan parte hartu duten eragile desberdinak, dirulaguntzaren inguruan eragile horiek dituzten iritziak eta azken erabakia
- Dirulaguntza lerro horretaz baliatu diren enpresen kopurua, kontratatuak izan diren gazteen kopurua, kontratatutako gazteen lan-baldintzen ezaugarriak (kontratu mota, iraupena...)
- Dirulaguntzaz baliatu diren eragileek (enpresek, gazteek) egiten duten ebaluazioa

4.2.2. Ekintza: Bazterketa arriskuan dauden gazteei enplegurako eta prestakuntzarako aholkularitza eskaintzea

Adin-tartea: 18 - 30 urte


Azalpena:

Oro har, lan-merkatuan integratzeko arazoak dituzte Tolosako gazteek. Bazterketa arriskuan dauden familietako gazte segmentu batentzat are zailagoa da laneratzeko formazio-prozesua osatzea eta derrigorrezko ikasketen ondoren jarraitzea. Hori kontuan izanik, haiei laguntzeko enplegurako eta prestakuntzarako programa sortzea proposatzen da: aholkularitza pertsonalizatua emateaz gain, tailer laburrak eta ikastaroak eskaini ahal izango dira (CVa sortzeko, bide ezberdinetatik enplegu eskaintzak bilatzeko, enpresak sortzen laguntzeko...).

Eragileak:

- Tolosako Udaleko Gazteria eta Ekonomiaren Sustapena arloak.
- Tolosaldea Garatzen Garapen Agentzia

Lehentasuna



Jarraipenerako adierazleak

- Prestakuntzarako aholkularitza eskaintzeko programa osatzeko burututako lanak, parte hartu duten eragileak eta programaren inguruan agertutako iritzi eta balorazioak
- Prestakuntza programaren arlo edota ikastaro desberdinetan parte hartu duen gazte kopurua.
- Parte hartu dute eragileek (aholkularitza/prestakuntzako agenteak, parte hartu duten gazteak) prestakuntza programaz egiten duten ebaluazioa.

4.2.3.Ekintza: Tolosako Udalak enplegu-plana egitea, plantillaren gaztetzea sustatzeko

Adin-tartea: 18 - 30 urte

Azalpena:


Gazteen lan-merkatuan eragiteko, Udalak berak ere egin ditzake ahaleginak. Hori horrela, Udalaren beraren plantilla gaztetzeko plana diseinatzea proposatzen da.

Plan hori egitekotan, Udalak bere plantilla egokitu eta berritzeko aurreikusita dituen prozesuekin uztartu beharko litzateke eta araudiaren ikuspegitik dauden aukerak kontuan hartuta, finka daitezkeen baldintzak ezarri. Ekintza hau burutu aurretik, Udal barruko gogoeta eta azterketa zehatza egin behar da.

Eragileak:

- Tolosako Udala, Udaleko Giza Baliabideen arloaren gidaritzapean

Lehentasuna



Jarraipenerako adierazleak

- Udaleko plantilla egokitu eta berritzeko prozesuetan, langile gazteen sarbidea errazteko dauden aukerak aztertzeke burututako lanak eta horietan oinarriturik hartutako erabakien jarraipena.
- Udaleko plantillan sartzten diren langileen artean, herriko gazteek duten pisu absolutua (kopurua) eta plantillan sartzten diren guztiekiko ordezkatzten duten pisu erlatiboa (proportzioa)

4.2.4. Ekintza: Emari co-working espazioa ekintzailtzarako erreferentziazko gunea bilakatzea, ez bakarrik lanerako espazio gisa, baita prestakuntzarako eta aholkularitzarako gune moduan ere

Adin-tartea: 18 - 30 urte


Azalpena:

Gazteen artean enplegua sustatzeko beste modu bat izan daiteke ekintzailtza sustatzea. Hori horrela, Tolosako Udalaren Emari co-working espazioa programa osatu baten barnean txertatzea proposatzen da. Co-working espazioa lanerako espazio gisa eskaintzeaz gain, ekintzailtzarako erreferentziazko gunea bilatuko da: bertan eskainiko dira Tolosako gazteen artean ekintzailtza sustatzeko beharrezko aholkularitza, baita tailer eta prestakuntza oro ere: enpresa sortzeko formakuntza, marketinga, kontabilitatea, antolakuntza, etab.

Eragileak:

- Tolosako Udaleko Ekonomiaren Sustapenaren arloa.
- Tolosaldea Garantzen Garapen-Agentzia.

Lehentasuna



Jarraipenerako adierazleak

- Emari co-working espazioa ekintzailtzarako erreferentziazko gune bilakatzeko burututako lanak (bilerak, azterketak...), horietan parte hartu duten eragileak eta proposamenaren inguruan egiten duten balorazioa
- Emari co-working espazioan, gazteen ekintzailtza sustatzeko burututako ekintzak: tailerrak, prestakuntza saioak, aholkularitza-zerbitzuak
- Ekintzailtza sustatzeko ekintza horietan parte hartu duten gazteen kopurua
- Parte hartu duten gazteek jasotako aholkularitza eta prestakuntzaren inguruan egiten duten balorazioa
- Emari co-working espazioa kudeatzen eta dinamizatzen duten eragileek egindako ebaluazioa

4.2.5. Ekintza: Tolosako gazteen artean ekintzailtza sustatzeko dirulaguntza lerroa sustatzea

Adin-tartea: 18 - 30 urte


Azalpena:

Ekintzailtza sustatzeko programa osatzearekin batera, Tolosako gazteen artean ekintzailtza sustatzeko dirulaguntza lerroa sortzea proposatzen da: lokalak hartzeko, baliabide teknikoak eskuratzeko, ideiak garatzeko... Beraz, dirulaguntza hau ekintzailtza proiektuak aurkezten dituzten gazteei bideratuta egongo da. Dirulaguntza sortzeko prozesuaren urrats nagusiak, ondokoak izan daitezke: hipotesien aurrikuspina (zenbateko laguntza eskain daiteke, zenbat ekintzailtza proiektu lagunduko diren, gehienez ere zenbateko laguntza emango ekintzailtza proiektu bakoitzari); dirulaguntzak emateko gutxieneko baldintzak (proiektua Tolosan garatzea, Tolosako gaztea izatea, proiektuaren interesa/bideragarritasuna); dirulaguntzaren komunikazio eta deialdia prestatzea (helburuak, jasotzaile potentzialak, aurkeztu beharreko dokumentazioa, emango den dirulaguntzaren zenbatekoa finkatzeko aplikatuko diren irizpideak, epeak)

Eragileak:

- Tolosako Udaleko Ekonomia Sustapenerako arloa.
- Tolosaldea Garatzen Garapen-Agentzia.

Lehentasuna



Jarraipenerako adierazleak

- Dirulaguntza lerroa sortzeko egindako lanak (bilerak, azterketak...), horietan parte hartu duten eragileak eta proposamenaren inguruan egiten duten balorazioa
- Dirulaguntza jasotzeko jasotako eskaera kopurua (zenbat gazte, zenbat ekintzailtza proiektua)
- Diruz lagundu diren ekintzailtza proiektuak: kopuru absolutua eta aurkeztutakoen artean laguntza jaso dutenek ordezkatzen duten proportzioa
- Dirulaguntza lerrorako finkatutako aurrekontu osotik benetan banatu dena
- Diruz lagundu diren proiektuen eragina: sortutako enplegua, proiektuen iraunkortasun-maila (iraupena denboran zehar)

4.3.HELBURU ESPEZIFIKOA: Etxebizitza eskuratzeko aukerak eskaintzea eta erraztasunak ematea Tolosako gazteei.

4.3.1.Ekintza: Gazteei zuzendutako alokairu sozialeko etxebizitzaren parkea handitzea

Adin-tartea: 18 – 30 urte


Azalpena:

Gaur egun Tolosako gazte askok zailtasun handiak dituzte etxebizitza eskuratzeko. Emantzipazioan laguntzeko, Euskal Herria plazan alokairu sozialeko 25 etxebizitza ditu Tolosako Udalak gazteentzako: emantzipatzeko lehen aukera eskaintzen zaie Tolosako gazteei denbora mugatu batez. Dena den, eskaintza ez da nahikoa: eskaria askoz handiagoa da eskaintza baino. Udala dagoeneko hasia da urratsak ematen: Amartzen alokairurako beste 111 bizitoki eraikiko dituzte epe motzean. Baina etorkizunean ere, pixkanaka parke hori handitzen jarraitzea proposatzen da. Horretarako jarrai daitekeen prozesua ondorengoa izan daiteke: Udalak, herriko gazteen artean dagoen etxebizitza eskaria neurtzeko tresnen jarraipena egin eta tresna horiek eguneratu; eskariaren eta epe laburrean aurrekusten den alokairu sozialeko etxebizitza eskaintzaren artean dauden aldeak aztertu; alokairu sozialeko etxebizitza eskaintzan antzematen diren gabeziari aurre egiteko neurriak aztertzea; alokairu sozialeko etxebizitzaren parkea handitzeko aukerak aztertu eta plangintza bat egitea.

Eragileak:

- Tolosako Udaleko Etxebizitza arloa.
- Eusko Jaurlaritzaren Visesa: Babes publikoko etxebizitza eta hiri birgaitzea/berritzea sustatzeko sozietate publikoa.
- Etxebizitza-sustatzaileak eta eraikuntza enpresak

Lehentasuna



Jarraipenerako adierazleak

- Tolosan, alokairu sozialeko etxebizitzaren eskaintza eta eskariaren arteko aldeak aztertzeko burututako lanak eta antzemandako gabeziei aurre egiteko hartutako neurrien jarraipena
- Alokairu sozialeko etxebizitza parkearen bilakaera: eskaintako etxebizitza kopuru
- Alokairuko etxebizitza parkearen eskaintza eta eskariaren arteko aldearen jarraipena: eskaintzak estaltzen ez duen eskariaren dimentsionamendua eta gazte kolektibo horren ezaugarriak soziodemografiko eta sozioekonomikoak (lan egoera, errenta, familia/konbidentzia mota...)
- Alokairuko etxebizitza parkearen eskaintza egokitzeko plangintza: aurreikusitako etxebizitza kopurua, etxebizitzak eraikitzeko epeak, etxebizitzak alokatzeko baldintzak

4.3.2. Ekintza: Merkatu libreko etxebizitzak alokatzeko eta merkaturatzeko dirulaguntza lerroa indartzea eta sustatzea

Adin-tartea: 18 - 30 urte

Azalpena:


Alokairu sozialeko etxebizitzak izateaz gain, Udalak merkatu libreko etxebizitzak alokatzea eta merkaturatzea sustatzeari ekin dio. Alokairuzko oso etxebizitza gutxi daudela ohartuta, etxebizitza hutsen diagnostikoa eta herritarren etxebizitza premiari buruzko ikerketa egin zuen Udalak. Horren arabera, 325 etxebizitza huts zeuden herrian 2021ean. Dena den, Tolosako gazteen pertzepzioa da, oraindik ere, herrian etxebizitza huts asko dagoela.

Azterketa eginda, merkatu libreko etxebizitzak alokatzeko eta merkaturatzeko dirulaguntza lerroa sortu zuen Udalak: 2021eko irailean argitaratu zuten lehen deialdia. Udalak laguntza lerro indartu eta sustatzea proposatzen da, gazteen segmentu guztietara iritsi dadin. Horretarako, aurretik irekitako dirulaguntza lerroa sortzeko burutu zuen prozesuaren antzekoa jarraitu behar du.

Eragileak:

- Tolosako Udaleko Etxebizitza arloa

Lehentasuna



Jarraipenerako adierazleak

- Dirulaguntza lerroa indartu eta sustatzeko egindako lanak (azterketak, bilerak...) eta azken erabakia hartzeko erabilitako argumentuak
- Dirulaguntza lerroa indartzeko aurreko aurrekontuari erantsi zaion diru kopurua eta horrek suposatzen duen igoera
- Diru laguntza indartu ondoren, diru laguntzaz baliatu den pertsona kopurua eta indartu aurretik baliatzen zuten pertsona kopuruarekiko izan duen hazkundera.
- Diru laguntza ezagutarazi eta zabaltzeko, burutukotako komunikazio eta sustapen ekintzak (hedabideen bidezko publizitatea eta promozioa, Udaleko web orriaren bidezko sustapena, sare sozialen bidezko sustapena...)

4.3.3. Ekintza: Jabeek merkatu libreko etxebizitzak alokatu eta merkaturatu ditzaten neurriak hartzen jarraitzea

Adin-tartea: 18 - 30 urte


Azalpena:

Merkatu libreko etxebizitzan alokairua eta merkaturatzea sustatzeko, aurreko dirulaguntza lerroa indartzearekin batera, beste zenbait neurriekin osatzea ere komenigarria litzateke. Udalak dagoeneko zenbait erabaki hartu ditu: zerga-errekargua ezartzea, Alokabiderek aholkularitza eskaintzeko hitzarmena adostea, edota sentsibilizazio-kanpaina bat martxan jartzea. Bide horretan, beste zenbait neurriekin osatu beharra dago, alokairura bideratutako etxebizitzan duintasuna bermatze aldera: konponketak egiteko dirulaguntzak jabeentzat, etab. Horretarako prozedura: Udalak, egun hartuak dituen neurriez gain, har ditzaken neurri berriak identifikatu eta baloratzea, adibidez: zerga-errekargua handitzea, alokatu aurretik etxebizitza eraberritzeko dirulaguntza ematea (muga batekin); etxebizitza alokatzeko egin beharreko prozedura administratiboak errazteko aholkularitza/laguntza ematea; alokatutako etxebizitzarengatik ordaintzen diren zergak (IBI-OHZ adibidez) jaistea.

Eragileak:

- Tolosako Udaleko Etxebizitza Arloa
- Eusko Jaurlaritzaren Alokabide
- Alokatu daitezkeen etxebizitzan jabeak

Lehentasuna



Jarraipenerako adierazleak

- Jabeek merkatu libreko etxebizitzak merkaturatu eta alokairuan jar ditzaten, Udalak aztertu eta onartu dituen neurri zehatzak identifikatzea.
- Neurri desberdinetaz baliatu diren etxebizitza jabeen kopurua
- Alokatzeko merkaturatu diren merkatu libreko etxebizitza kopurua eta neurri berriak aplikatu aurretik ateratzen zirenekin konparatun (igoera kalkulatu)

5. ARDATZA: Haur, nerabe eta gazteen saila indartzea, zabaltzea eta ikusaraztea

5.1.HELBURU ESPEZIFIKOA: Haur, nerabe eta gazteen saila sortzea eta Udalaren antolaketan duen funtzioa birdefinitzea.

5.1.1.Ekintza: Haur, nerabe eta gazteen saila definitzea eta funtzioak aitortzea

Adin-tartea: 0 – 30 urte

Azalpena:

Behin Tolosako haur, nerabe eta gazteen beharrak eta hutsuneen inguruko gogoeta eginda, udal departamentua berdefinitzeko beharra antzeman da: bai udal barruan, Udaleko sail desberdinetatik haur-nerabe-gazteei bideratutako programa eta zerbitzu desberdinen koordinazioa hobetzeko, baita biztanle-multzo horrentzat erreferentziazkoa izan dadin.

Horretarako, sailaren beraren helburu orokorra zehaztuko da eta udal barruan izango dituen funtzioak aitortuko zaizkio. Baliagarria izan daiteke adin-multzoka funtzionatzea: horiek zehaztea eta multzo bakoitzeko funtzioak eta helburuak finkatzea.

Era berean, sailaren kokapena aztertu beharko litzateke, baita ere: gazteentzat irisgarriagoa eta erakargarriagoa den leku batean kokatu beharko litzateke.

Burutu beharreko prozesua ondorengoa izan daiteke: Tolosako haur, nerabe eta gazteengan eragiteko egun indarrean dauden eta, Plan honetan oinarrituta, aurrerantzean abian jar daitezkeen programa, zerbitzu eta jarduerak identifikatu, Udaleko sail desberdinekin koordinatuta; identifikatu diren programa eta ekimen horien kudeaketa integralagoa, koordinatuagoa eta eraginkorragoa izateko, egungo haur, nerabe eta gazteria arloak izan beharko litzuzkeen eginkizunak eta funtzionamendua definitu; eginkizun horiek kontuan hartuta, haur, nerabe eta gazteen arloak Udaletxe barruko organigraman izan beharko lukeen kokapena eta egitura zehaztu.

Eragileak:

- Tolosako Udala, Alkatetza, Gazteria arloa eta sail desberdinen arteko koordinazioan oinarritua

Lehentasuna

Oso altua Altua Erdizka Baxua
10 9 8 7 6 5 4 3 2 1



Jarraipenerako adierazleak

- Tolosako Udalaren Gazteria arloaren eginkizunak, egitura eta Udal barruko kokapena aztertu eta zehazteko egindako lanak (bilerak, azterketak...)
- Lan horietan parte hartu duten eragileak (sail desberdinetako politikoak, teknikariak...); Gazteria arloaren eginkizunen inguruan egindako gogoetak eta udal barruko organigraman izan behar duen kokapenaren inguruko planteamenduak; hartutako azken erabakia eta horren justifikazioa

5.1.2. Ekintza: Haur, nerabe eta gazteen sailaren beharrak identifikatzea eta baliabideak zehaztea: ekonomikoak zein pertsonalak

Adin-tartea: 0 – 30 urte

Azalpena:


Haur, nerabe eta gazteen sailaren funtzioak identifikatu ondoren, sailaren egitura eta baliabideak diseinatzeari ekingo zaio: sailaren beharrak identifikatuko dira orduan, baita horretarako baliabideak esleitu ere, pertsonalak, ekonomikoak zein materialak/azpiegitura aldetikoak. Horretarako, haur, nerabe eta gazteen sailari dagokion ekintza-plan hau baliagarria izango da.

Beraz, Gazteria arloa/sailaren eginkizunak eta Udal barruko kokapena definitu ondoren, eginkizun horiek modu egokian garatzeko beharrezkoak diren baliabide pertsonal, ekonomiko eta materialak/azpiegiturakoak zehaztu behar dira..

Eragileak:

- Tolosako Udala, Gazteria eta Ogasun arloen arteko koordinazioan oinarrituta

Lehentasuna



Jarraipenerako adierazleak

- Tolosako Udalaren gazteria arloko politika eta programa desberdinak aurrera eramateko erabiltzen diren baliabideen bilakaera: giza-baliabideak (kopurua, perfilak, lan-baldintzak); azpiegitura eta baliabide materialak; baliabide ekonomikoak (aurrekontua)
- Gazteria arlotik bideratzen diren programen kudeatzaileek eta jasotzaileek (haur, nerabe eta gazteek) egiten duten ebaluazioa (kuantitatiboa, gogobetetze inkesten bidez, nahiz kualitatiboa, eztabaida talde edo taldeen dinamizazioaren bidez)

5.1.3. Ekintza: Urtero, sailaren urteko ekintza-plana lantzea

Adin-tartea: 0 - 30 urte


Azalpena:

Bost urterako ekintza-plana onartu ondoren, urtero sailaren urteko ekintza-plana lantzea egokia izan daiteke. Hain zuzen, haur, nerabe eta gazteen sailaren antolaketa egokirako eta baliabideak zehazteko aproposa izan daiteke. Plan horrek, besteak beste, urteko helburuak eta horiek egikaritzeko ekintzak jasoko ditu. Behin urtea pasata, ebaluatu egingo da, horretarako aurrez ezarritako adierazleen bitartez. Ebaluazio horrek hurrengo planaren norabidea irudikatzen lagunduko du

Eragileak:

- Tolosako Udaleko Gazteria arloa.
- Udaletik haur, nerabe eta gazteei zuzendutako programa eta ekimen desberdinetan parte hartzen duten Udaleko nahiz Udalak kontratatuta lanean ari diren teknikari eta bitartekariak (begiraleak, kale hezitzaileak, dinamizatzaileak, formakuntza arloko eragileak...)

Lehentasuna



Jarraipenerako adierazleak

- Urteko ekintza planean aurreikusitako programa, jarduera desberdinetan parte hartu duten haur, nerabe eta gazteen kopurua, nahiz banatutako dirulaguntzak baliatu dituztenen kopurua.
- Urteko ekintza planean aurreikusitako programa eta jarduera desberdinen garapen-maila eta horietan parte hartu dutenen ebaluazioa (programen kudeatzaileek nahiz parte hartu duten haur, nerabe eta gazteek egina)

5.1.4. Ekintza: Haur, nerabe eta gazteen sailaren zeharlerrotasuna bultzatzeko, udal Gazteria Mahaia sortzea

Adin-tartea: 0 – 30 urte

Azalpena:


Haur, nerabe eta gazteen ikuspegia udal politika eta antolaketa osoan txertatzea da sailaren helburuetako bat; Udalaren barnean zeharlerrokoa izatea, alegia. Haur, nerabe eta gazteen saileko teknikariak, beraz, multzo horren bozgoragailu eta bitartekari izan beharko du Udalaren barnean. Udalak dituen proiektuetan, eta bereziki estrategikoak diren horietan, segmentu horren iritzia kontuan hartzea, eta haien interesak eta eskubideak defendatzea izango du xede.

Zeharlerrotasunaren irizpidea sustatzeko asmoz, hain zuzen, udal Gazteria Mahaia sortzea proposatzen da: udaleko sail batzuek zein haur, nerabe eta gazteekin udaleko zerbitzuetan dabilzan enpresa edota elkarteek osatuko dute. Era berean, Mahai horretan gazteak ere ordezkatuak egotea litzateke helburua, ahal dela euren zuzeneko ordezkartzaren bidez eta ezinezkoa bada, Mahai horretara euren interesak, beharrak eta proposamenak eramango dituen gazteria arloko teknikariaren bidez (Horrek eskatzen du, aurrez, gazteria arloak, haur, nerabe eta gazteen ekarpenak jasotzeko parte hartze sistema eta komunikazio kanalak baliatu behar dituela)

Eragileak:

- Tolosako Udaleko Gazteria, Hezkuntza (ikastetxeak, guraso elkarteak), Gizarte Ongizatea, Kirola, Ingurumena, Merkataritza ... arloak
- NURA elkarte (kale-hezitzaileak)
- ARAZI elkarte (Haurren Hiria programa)
- Gazte Topaguneko hezitzaileak (Kili-Kolo elkarte)

Lehentasuna



Jarraipenerako adierazleak

- Gazteria Mahaiaren bilera kopurua
- Gazteria Mahaiaren bileretan parte hartutako eragile desberdinak eta parte hartu duten pertsonen kopurua.
- Gazteria Mahaiaren funtzionamendu eta eraginkortasunari buruzko urteroko ebaluazioa, parte hartzen duten eragile desberdinen balorazioetan oinarrituta (galdesorten bidez nahiz talde-dinamikaren bidez)

5.1.5. Ekintza: Udaleko sail desberdinek hiritartasuna eta parte-hartzea sustatzeko ikastetxe desberdinetan garatzen dituzten programa ezberdinak koordinatu eta horien aplikazio integralerako bideak jorratzea

Adin-tartea: 6 – 16 urte


Azalpena:

Udaleko sail desberdinetatik haur, nerabe eta gazteei bideratutako programa zein zerbitzuak ugariak dira, eta udaleko teknikariek askotan jotzen dute ikastetxeetara horien zabalkunderako, eta batzuetan, baita inplementaziorako ere. Programa bakoitzeko interlokutorea desberdina da, eta ikastetxeen koordinazio-lanak zaildu ditzake. Egoera honen aurrean, erreferentziatzko interlokutore baten falta sumatzen dute Tolosako ikastetxeek: Udalak ikastetxeen bitartez zabaltzen edo inplementatzen dituen programa guztiak koordinatuko dituen. Figura hori Gazteriak Teknikariak hartu beharko luke bere gain, eta udal Gazteria Mahaia baliatu beharko luke lan hori aurrera eramateko.

Eragileak:

- Tolosako Udaleko Gazteria, Hezkuntza, Ingurumena, Merkataritza... arloak
- Tolosako ikastetxeak: zuzendaritzak, irakasleak, guraso elkarteak.

Lehentasuna



Jarraipenerako adierazleak

- Udalak ikastetxeetan burutzen dituen programa desberdinen inguruko komunikazioa eta koordinazioa hobetzeko egindako lanaren inguruan, ikastetxeetako zuzendaritza, irakasle eta guraso elkarteek egiten duten balorazioa, Gazteria arloaren gidaritzapean (galdesorta nahiz talde-dinamiken bidez eginak)
- Ikastetxeetan programa eta ekintza desberdinek burutzen dituzten Udaleko sail desberdinek, programa horiek modu koordinatu eta modu integralagoan garatzeko egindako lanen inguruko Udal barruko ebaluazioa, Gazteria arloaren gidaritzapean.

5.2.HELBURU ESPEZIFIKOA: Haur, nerabe eta gazteen sailaren barne- zein kanpo-komunikazioa lantzea eta garatzea.

5.2.1.Ekintza: Haur, nerabe eta gazteen sailaren komunikazio-plana diseinatzea eta kudeatzea

Adin-tartea: 0 – 30 urte

Azalpena:

Gaur egun, Tolosako Udaleko Gazteria Sailaren errealitatea da herriko gazte askok ez duela ezagutzen, ez dakiela zer eskain dakioken, eta beraz, nekez izan litekeela beraientzako erreferente bat. Neurri txikiagoan, gauza bera gertatzen da gazteekin lan egiten duten elkarteekin ere: kiroltako elkarten kasuan, adibidez, harremana gehiago ulertzen dute Kirol Sailarekin Gazteria Sailarekin baino.


Hortaz, zenbait hutsune baditu sailaren ikusgarritasun eta komunikazio aldetik, eta beharrezkotzat jotzen da komunikazio-plan bat diseinatzea – barne- zein kanpo-komunikazioa landuko du-. Komunikazio-plan hori diseinatzeko, diagnostikoak jasotzen ditu interesgarriak izan daitezkeen gako batzuk.

Gipuzkoako Foru Aldundiko Haur eta Gazteen Sustapen Zerbitzuaren aholkularitza baliatu dezake Tolosako Udalak horretarako.

Eragileak:

- Tolosako Udaleko Gazteria arloa eta Komunikazioa.
- Gipuzkoako Foru Aldundiko Haur eta Gazteen Sustapen Zerbitzuaren aholkularitza.

Lehentasuna



Jarraipenerako adierazleak

- Komunikazio planean aurreikusitako ekintzak burutzeko egindakoa: prentsaurrekoak, hedabideen bidezko mezuak, bilerak, editatu eta banatutako materialak (kartelak, eskuorriak...), baliabide elektronikoaren bidezko ekimenak (web orrien nahiz sare sozialen bidez...)
- Gazteria sailak/arloak, kanpoko nahiz Udal barruko eragile desberdinengandik jasotako argibide eskaerak, kontsultak, deiak, laguntza eskaerak.
- Eskabide eta kontsultak egiteko eragileek erabilitako sistema eta euskarriak: telefonoz, aurrez aurreko bileren bidez, posta elektronikoz, sare sozialen bitartez....

5.2.2. Ekintza: Sailaren ikusgarritasuna lantzea: barne- zein kanpo-harremanak ehuntzea eta urteko ekintza-planen aurkezpenak egitea

Adin-tartea: 0 – 30 urte

Azalpena:

Haur, nerabe eta gazteen sailaren ikusgarriagoa egitea da, baita ere, plan honen helburuetako bat. Bide horretan, barne- zein kanpo-harremanak ehundu beharko dira: udal teknikariekiko gazte-multzoaren ikuspegia lantzeko bilerak egin, elkarteekin hitz egin, gazteak dauden lekuetara gerturatu...

Banakako bilerak egiteaz gain, formalak zein informalak, urtero-urtero ekintza-planaren aurkezpena egiteko bilera bat deitzea proposatzen da: gazteekin eta haiekin harremanetan dauden elkarte zein ikastetxeekin. Udalaren urteko helburuak partekatatu, ekintzak aurkeztu eta hausnartu, proposamenak eta kezkek jasotzeko gunea izango da.

Eragileak:

- Tolosako Udaleko Gazteria arloa.
- Tolosako ikastetxeak
- Tolosako aisialdi, kultur eta kirol elkarteak
- Tolosako haur, nerabe eta gazteak

Lehentasuna



Jarraipenerako adierazleak

- Haur, nerabe eta gazteekin harremanak duten elkarte eta eragile desberdinekin burututako komunikazio-ekintzak: bilerak, aurkezpenak, elkarrizketak...
- Haur, nerabe eta gazteekin harremanak ehundu eta errefentzilasuna lortzeko erabilitako plataforma, ekipamendu eta bitartekariak: ikastetxeak; Gazteen Topagunea; begiraleak; kale-hezitzaileak; haur, nerabe eta gazteei zuzendutako ekintzak/programak antolatzen diren bileretara joatea...

5.3.HELBURU ESPEZIFIKOA: Udalaz gaindiko administrazioaren harremanetarako foroetan, bileretan nahiz ekimenetan parte-hartzea.

5.3.1.Ekintza: Gipuzkoako Foru Aldundiaren Gaztematika sarean parte hartzea

Adin-tartea: 0 – 30 urte

Azalpena:

Gipuzkoako Foru Aldundiaren Gaztematika sarean parte hartzen du Tolosako Udalak, haur, nerabe eta gazteen sustapenerako sortutako sare publikoan. Sare hau baliagarria da haur, nerabe eta gazteen politika publikoetan orientazioa eta elkarrekintza bultzatzeko. Horrez gain, babesa eta aholkularitza ere eskaintzen dizkio Gazteria teknikariari. Hori guztia dela-eta, garrantzitsutzat jotzen da sare honetan jarraitzea.

Lan-sare bat baino gehiago da Gaztematika: haur, nerabe eta gazteen sustapena ulertzeko era bat da. Ondorengoak dira bere lana eta esku-hartzeak gidatzen dituzten oinarri nagusiak:


1 Continuum	2 Erantzukizun publikoa	3 Sektoriala eta espezifikoa	4 Zeharkakoa eta integrala	5 Aisialdi hezitzailea	6 Gertutasuna
Prozesu jarraia: haurrekin lehenengo, nerabeekin ondoren, gazteekin azkenik	Gizarte guztiak du haurren gaineko ardura, eta beraz, administrazio publikoak haien sustapenean eragiteko betebeharra du	Biztanle-talde espezifikoa: administrazio publikoak antolaketa-unitate eta jarduera espezifikoko izateko beharra	Haur, nerabe eta gazteez zuzenean arduratzen ez diren sistema publikoak txertatzea: hezkuntza, osasuna, gizarte-zerbitzuak, etxebizitza, enplegua, kultura, etab.	Batez ere hezkuntza ez-formaletik lan egitea, jolasaren bidez	Udal-hurbiltasuneko zerbitzuak, auzoetakoak
7 Proaktibitatea	8 Berdintasuna eta dibertsitatea	9 Parte-hartzea	10 Koordinazioa eta kolaborazioa	11 Ezagutza eta kalitatea	12 Maila guztietan
Pertsonalizazioa, jarraipena eta prebentzioa (aurre hartzea)	Aukera berdinak guztientzat. Tratamendu justua eta berdina, beharrak eta gaitasunak kontuan hartuta. Bazterketarik gabe	Haurrek, elkarrekin eta erakundeek sustapenarekin zerikusia duen guztian parte hartu behar dute	Baliabideak, gaitasunak, helburuak, prozesuak...etab. "bateratuz"	Ezagutza, profesionalizazioa, kualifikazioa, teknifikazioa...etab. oinarrituz.	Bultzada politikoa, teknikoa, hezkuntza arlokoa...etab.

Iturria: Gaztematika. Siadecok

Eragileak:

- Tolosako Udaleko Gazteria arloa.
- Gipuzkoako Foru Aldundiaren Gazteria Zuzendaritza.
- Gipuzkoako gainontzeko udalak

Lehentasuna



Jarraipenerako adierazleak

- Gaztematika sareak antolatuko programa eta ekimenetan, Tolosako Udalak izan duen parte hartzearen jarraipena: Gaztematikaren inguruan antolutako saio eta dinamiketan Tolosako Udalak izan duen parte hartzea; Gaztematikaren programa/ekintza desberdinak Tolosara ekarri eta bertan garatzeko burututako ekintzak, erabilitako materialak...
- Gaztematika sareak sustatuta, Tolosan antolatu diren ekintza eta programetan (Zaletu Programa kasu), parte hartu duten udal eragileak eta haur, nerabe eta gazteen kopuruak

5.3.2. Ekintza: Ekimen bateratuak burutzeko aukera aztertzea (Eusko Jaurlaritzarekin, Foru Aldundiarekin, beste udalekin...) eta sailaren helburuekin bat egiten badu, ahal den neurrian, parte hartzea

Adin-tartea: 0 – 30 urte

Azalpena:


Gazteria Sailak baliabide aldetik dituen mugak ikusita, interesgarria izan daiteke beste erakundeekin ekimen bateratuak egitea, betiere, sailaren helburuekin bat egiten badute: Eusko Jaurlaritzarekin, Foru Aldundiarekin, Tolosaldeko gainontzeko udalekin...

Horretarako garrantzizua izango da arestian aipatutako Gaztematika Sarean egon eta bertan garatzen diren programa eta ekimen desberdinen jarraipena egitea, plataforma horrek ematen duelako Gipuzkoako udal eta erakunde publiko desberdinekin harremanetan egon eta burutzen diren ekimen eta proiektu desberdinak partekatzeko aukera..

Eragileak:

- Tolosako Udaleko Gazteria arloa.
- Beste erakunde batzuk: Eusko Jaurlaritza, Foru Aldundia, Tolosaldeko gainontzeko udalak...

Lehentasuna



Jarraipenerako adierazleak

- Proiektu eta ekimen bateratuak garatzeko beste udal eta erakunde publikoekin izandako harremanen jarraipena: bilerak (presentzialak nahiz telematikoak), dokumentuen elkartrukea...
- Beste udal eta erakundeekin burutu diren programa eta ekintza zehatzak, horiek burutzeko erabilitako baliabide ekonomiko, pertsonal eta material guztiak eta horien artean, Tolosako Udalak jarri dituenak; programa eta ekintza horietan parte hartu duten udal eragileak eta haur, nerabe eta gazteen kopuruak.

ARDATZAK	HELBURU ESTRATEGIKOAK	EKINTZAK	Kronograma					Aurrekontua
			2023	2024	2025	2026	2027	
1	1.1. Aisialdi hezitzailearen udal eskaintza zabaltzea (haur, nerabe eta gazteengana zabaldu) eta bultzatzea.	1.1.1. 10-12 urtetik beherakoentzat aisialdi hezitzaile publikorako aukerak aztertzea (ludoteka, urte osoko programa, udalekuak...) aisialdi taldeekin eta ikastetxeekin elkarlanean			X	X		Barne kudeaketa
		1.1.2. Gazte Topagunearen zerbitzua indartzea egungo beharretara egokituz (azpiegitura eta baliabide materialak, baliabide pertsonalak eta funtzionamendua -ordutegiak, ekintza motak...)		X	X	X	X	29.200,00 €
		1.1.3. 17 urtetik gorako gazteei erakargarria egingo zaien planteamendua lantzea gazteen parte-hartzearekin					X	8.400,00 €
		1.1.4. Gazteen arteko harremanak eta topaketa bultzatzeko ekintzak burutzea, herriko elkarteekin elkarlanean			X	X	X	6.400,00 €
	1.2. Haur, nerabe eta gazteen artean kultura sustatzea: eskaintza bera eta sormenerako baliabideak indartzea	1.2.1. Haurrei zuzendutako programazioari jarraipena ematea eta ahal den neurrian, indartzea	X	X	X	X	X	8.200,00 €
		1.2.2. Nerabe eta gazteei zuzendutako kultur eskaintza diseinatzeko parte-hartze prozesua garatzea: lehenengo, nerabe eta gazteen nahiak eta beharrak zein diren identifikatzeko; eta ondoren, programazioa haiekin diseinatzeko			X	X	X	18.900,00 €
		1.2.3. Nerabeei berariaz zuzendutako kultur tailerrak eta ikastaroak antolatzea	X	X	X	X	X	10.200,00 €
		1.2.4. Amartzoko entsegu lokalen dinamizaziorako eta jarraipenerako plana diseinatzea eta garatzea				X	X	10.900,00 €
		1.2.5. Udalaren kultur eskaintzaren berri emateko komunikazio-kanal egokiak lantzea gazteei begira			X	X	X	4.800,00 €
	1.3. Haur, nerabe eta gazteen artean bizitza osasuntsua eta kirolaren praktika sustatzea	1.3.1. Usabal kiroldegia eta haren ingurua gazteen elkargune gisa indartzea			X		X	6.500,00 €
		1.3.2. Gazteek banakako kirola egiteko aukerak erraztea udal ekipamenduetan: kiroldegiko abonua berezia martxan jartzea gazteentzat eta gimnasioko adin-muga egokitzea			X	X		Barne kudeaketa
		1.3.3. Eskola Kirolaren programa indartzea: balioak gizarteratzeko sentsibilizazio-kanpaina egitea eta baliabideak handitzea			X	X	X	10.100,00 €
		1.3.4. Klean/espazio publikoan kirola edo ariketa fisikoa egiteko programa sortzea nerabe eta gazteei zuzendua					X	6.300,00 €
		1.3.5. Kirol ekipamenduen erabilerarako beharrak aztertzei ikerlana egitea eta neurri zuzentzaileak ezartzea				X		19.200,00 €
		1.3.6. Tolosaldeko gainontzeko udalekin kirol instalazioen erabilerarako hitzarmena lantzea eta adostea					X	Barne kudeaketa

ARDATZAK		HELURU ESTRATEGIKOAK	EKINTZAK	Kronograma					Aurrekontua
				2023	2024	2025	2026	2027	
1	Haur, nerabe eta gazteen aisialdiaren erabilera esku-hartzea eta herriko espazioak eta ekipamenduak haur, nerabe eta gazteen beharretara egokitzea	1.4. Tolosako espazio publikoa haur, nerabe eta gazteentzat erakargarria, atsegina eta segurua izatea	1.4.1. Tolosa herri segurua izateko protokoloa lantzea eta adostea, gazteekin elkarlanean		X				Barne kudeaketa
			1.4.2. Kaleak/espazio publikoa nerabe eta gazteen beharretara egokitzea, zenbait ekipamenduren hornikuntzarekin (iturriak, bizikletak aparkatzeko lekuak...)			X	X	X	26.000,00 €
			1.4.3. Haur, nerabe eta gazteek gehien erabiltzen dituzten ekipamenduen jarraipen-lana egitea, eta beharrezkoa denean, txukunketa eta eraberritze-lanak proposatzea hirigintza sailari	X	X	X	X	X	15.300,00 €
			1.4.4. Erabilera urria duten ekipamenduen erabilera posibleak aztertzea eta haien erabilera-maila areagotzeko proposamena osatzea				X	X	Barne kudeaketa
			1.4.5. Balio anitzetarako baliagarria izango den gune estalia eraikitzeko aukera aztertzea hirigintza sailarekin batera				X		Barne kudeaketa
			1.4.6. Hirigintza esku-hartzeak egiterakoan haur, nerabe eta gazteen ikuspegia txertatzea	X	X	X	X	X	Barne kudeaketa
		1.5. Herriaren dinamizazioan eta aisialdi eskaintzan eragiteko elkarte zein taldeekin egiten dituzten esku-hartzeak babestea eta laguntzea	1.5.1. Herriko eragileek haur, nerabe eta gazteentzako antolatutako aisialdiko ekimenak aurrera eramateko dirulaguntza lerroa sustatzea	X	X	X	X	X	20.200,00 €
			1.5.2. Herriko eragileei ekintzak antolatzeko baliabide teknikoak (materiala, azpiegiturak...) eskaintzea		X	X	X	X	3.500,00 €
Guztira 1. ARDATZA								204.100,00 €	

ARDATZAK	HELBURU ESTRATEGIKOAK	EKINTZAK	Kronograma					Aurrekontua		
			2023	2024	2025	2026	2027			
2	Parte-hartzea, herritartasuna eta komunitate-arekiko lotura sustatzea	2.1. Erakunde publikoen eta batez ere, Udalaren funtzionamenduaren inguruan gazteek duten ezagupen faltari aurre egin eta erakunde horiek herritarren eta gazteen bizi-baldintzak hobetzeko duten garrantziaren inguruko sentsibilizazioa lantzea	2.1.1. Administrazio-maila ezberdinen antolaketa eta funtzionamendua Tolosako nerabeei ezagutarazteko proiektu didaktikoa lantzea modu pilotuan		X	X			Barne kudeaketa	
		2.1.2. Urtero, Udaleko sail desberdinetako ordezkarien bititak antolatzea ikastetxeetara				X	X	X	Barne kudeaketa	
		2.1.3. Udalak haur, nerabe eta gazteei zuzenduta dituen ekipamendu eta zerbitzuen eskuliburua/karta sortzea eta horren zabalpena egitea: euskarri fisikoa (papera), elektronikoa (Udalaren web-orria eta sare sozialak)				X	X	X	7.300,00 €	
		2.1.4. Haur, nerabe eta gazteentzako udal informazio gune bat sortzea (gazteentzako Udalaren erreferentzia izango dena) eta gune horren euskarri fisikoa (bulegoa) eta birtuala (webgunea) sustatzea							X	8.000,00 €
		2.2.1. Haurren Hiria egitasmoaren jarraipena eta zabalpena: haur gehiagok parte hartzeko aukera izan dezaten (adin tarte zabalagoa, ordezkari gehiago)				X	X	X		10.500,00 €
		2.2.2. Udaleko sail desberdinek (kirola, kultura, gizarte ongizatea, hirigintza...) eragileen parte-hartzea bideratzeko sortuak dituzten mahai instituzional iraunkorretan, gazteen parte-hartzea integratzeko kanal/bitarteko espezifikoak ezarri, kudeatu eta jarraipena egitea (ikastetxeetako ikasleen mahaia; Topaguneko nerabeen mahaia...)						X	X	Barne kudeaketa
		2.2.3. Tolosako Udalak, proiektu eta egitasmo desberdinen inguruan zabalduko parte-hartze prozesu irekietan, haur, nerabe eta gazteen parte-hartzea espezifikoak sustatu eta egindako proposamenen jarraipen sistematikoa egin eta egoera komunikatzea (kudeaketa egoeraren inguruko informazioa itzultzeko protokoloa zehaztuz)							X	Barne kudeaketa
		2.2.4. Nerabeen parte-hartze egituratuak sustatu eta Udalaren kudeaketarekin uztartzeko, heziketa zentron bidez bideratuko litzatekeen parte-hartze egitasmoa lantzea				X	X	X		28.800,00 €
		2.2.5. Gazteen parte-hartze zabala, iraunkorra eta eraginkorra sustatzeko sistema diseinatu, gazteengana hurbiltzeko guneak-eragileak eta kanalak zehaztuz.							X	24.500,00 €
		2.2.6. Gazteen parte-hartzearen panela osatzea (18-30 urte arteko gazteek osatua)				X	X	X		Barne kudeaketa
		2.3. Haur, nerabe eta gazteen herritartasuna eta komunitatearekiko lotura areagotzeko sentsibilizazioa sustatzea	2.3.1. Haur, nerabe eta gazteen interes, jarrera eta parte-hartzearen inguruko ikerketa integrala burutzea (inkesta kuantitatiboa eta lantalde kualitatiboak)						X	25.800,00 €
		2.3.2. Tolosan lan boluntarioa eta herritartasuna sustatzeko burutzen diren jardueren azterketa egin eta horiek sustatzeko programa lantzea: Gazteen Boluntariora Azoka; ekipamenduak berreskuratzeko auzolaneko esperientziak; Foru Aldundiaren Zaletu Programa				X	X			19.200,00 €
			Guztira 2. ARDATZA					124.100,00 €		

ARDATZAK	HELBURU ESTRATEGIKOAK	EKINTZAK	Kronograma					Aurrekontua
			2023	2024	2025	2026	2027	
3	3.1. Haur, nerabe eta gazteen menpekotasun arriskuei aurre egiteko egungo egoera aztertzea eta izaera ezberdinetako jarduerak burutzea	3.1.1. Tolosako haur, nerabe eta gazteen artean menpekotasuna eragiten duten kontsumoen inguruko azterketa burutzea, esku-hartze politikak egokitzeko: alkohola, edari energetikoak, bestelako sustantziak, jokoa eta IKTak (Internet, sare sozialak)		X				28.600,00 €
		3.1.2. Udalaren prebentzio mahaiak sustatuta, alkoholaren gehiegizko kontsumoaren arriskua gutxitzeko aplikatzen diren esku-hartzeen jarraipena eta egokitzapena				X		Barne kudeaketa
		3.1.3. IKTen kontsumoak izan ditzakeen arriskuei aurre egiteko formazio-ekintzak antolatzea (tailerrak, hitzaldiak, solasaldiak): gurasoentzako eta haur-nerabeentzako				X	X	3.000,00 €
		3.1.4. Gehiegizko kontsumoari aurre egiteko, asteburuetakako jarduera alternatiboen programa sustatzea (kontsumorako momentuetan eta horren ondoren ere): kuadrillen arteko jolasak eta kirol ez lehiakorra egokitutako espazio/ekipamendu publikoetan; alkoholik gabeko festak; zaletasunak esperimentatzeko tailerrak; mendi irteerak eta txangoak...				X	X	X
	3.2. Berdintasuna eta gizarte integrazioa zentzu zabalean sustatzea haur, nerabe eta gazteen artean, bai generoaren, bai jatorriaren ikuspegitik	3.2.1. Haur, nerabe eta gazteen artean, genero berdintasunaren inguruko sentsibilizazioa lantzeko burutzen diren jarduerari jarraipena ematea eta ebaluatzea (Hezkidetzeta programa)	X	X	X	X	X	5.500,00 €
		3.2.2. Kirolean neska gazteen jarduera sustatzeko programa integrala lantzea: egungo kirol praktika desberdinak aztertu; nesken kirol praktika zabaltzeko oztopo eta aukerak identifikatu; nesken arteko kirol praktika areagotzeko neurriak proposatu				X	X	21.700,00 €
		3.2.3. Ongi Etorri programari zabalpen handiagoa emateko neurriak hartzea				X	X	26.000,00 €
		3.2.4. Egoera zaurgarrian dauden edota kanpotik iritsi berri diren haur, nerabe eta gazteen nahiz euren familien integrazioarako zerbitzu eta programa desberdinen jarraipena egitea horien eraginkortasuna areagotzeko					X	Barne kudeaketa
	3.3. Haur, nerabe eta gazteen artean jasagarritasuna sustatzea, tokiko produktu/zerbitzuen kontsumoa bultzatuz, bertako identitate kulturalaren ezaugarriak indartzuz (batez ere, euskara) eta ingurumen ondareari balioa emanez	3.3.1. Tolosako nerabe eta gazteen kontsumo eta erosketa ohiturak aztertze diagnosticoa egitea (herrian erosteko joera sustatzeko ekimenak diseinatu ahal izateko)					X	14.200,00 €
		3.3.2. Bertako produktuak eta azoka ezagutu eta bertako eskaintzari balioa emateko sentsibilizazio-ekintzak burutzen jarraitzea eta berriak garatzea. Azoka Lagunak proiektuaren baitan	X	X	X	X	X	5.500,00 €
		3.3.3. Tolosako merkataritza eskaintzaren komunikazioa hobetzea, gazteek erabiltzen dituzten kanaletara egokituz (sare sozialak, internet) notorietatea eta erakargarritasuna areagotzeko		X	X	X	X	8.200,00 €
		3.3.4. Haur, nerabe eta gazteen artean euskararen erabilera sustatze aldera burutzen diren plangintza eta ekimenetan, hiru eremu edo lan-ildo nagusi lehenestea proposatzen da: euskararen aldeko motibazio afektiboa sustatzeko, aisialdi eremuko harremanetan euskara sustatzea; kanpotik iritsi berrien ikasketa-prozesua errazteko euskararen irakaskuntza indartzeko baliabide osagarriak eskaintzea; musika eta IKTen esparruetan, euskarazko sorkuntza bultzatzeko laguntzak bideratzea (dirulaguntzak, lehiaketak, topaketak, formazio-tailerrak...)	X	X	X	X	X	20.500,00 €
	Guztira 3. ARDATZA							163.800,00 €

ARDATZAK	HELBURU ESTRATEGIKOAK	EKINTZAK	Kronograma					Aurrekontua
			2023	2024	2025	2026	2027	
4	4.1. Tolosako gazteen garapen pertsonal eta sozialerako aukerak areagotzeko, hezkuntza sistemaren funtzionamendua egokitu eta eskaintza osatzea, berdintasuna eta integrazioa ardatz hartuta	4.1.1. Hezkuntza Mahaia sortzen denean, eskola-segregazioari aurre egiteko, EAEko Hezkuntza Lege berriaren aplikaziotik eratorritako ondorio sozialen jarraipena egiteko sistema sortu eta aplikatzea (etorri berrien/egoera zaurgarrian daudenen: presentzia udal ekipamendu/jarduera desberdinetan; herri elkarte/talde desberdinetan; kuadrilla desberdinetan...)				X	X	Barne kudeaketa
		4.1.2. Tolosan arte-batxilergo ikasketak eskaintzeko aukera aztertzea (unibertsitate aurreko irakaskuntza eskaintza osoa izateko) eta eskaera baldin badago bideratzea				X		Barne kudeaketa
		4.1.3. Ikastetxeetan euskara sustatzeko eta indartzeko neurriak hartzea, batez ere, kanpotik iritsi berrien euskararen ikasketa prozesua laguntzeko baliabide osagarriak handituz		X	X	X	X	12.200,00 €
		4.1.4. Lanbide Heziketako ikasketek lan merkatuan integratzeko eskaintzen dituzten aukerak sustatu eta ikasketa profesionalak aukeratzekoan dagoen genero arrakalari aurre egiteko sentsibilizazio ekintzak burutzea			X	X	X	10.200,00 €
	4.2. Gazteen kalitatezko enplegua sustatzea eta laneratzea erraztea, besteak beste, egoera zaurgarrian daudenei eta ekintzaileei	4.2.1. Tolosako enpresek gazteak kalitatezko baldintzetan kontratatzeko dirulaguntza lerroa sortzeko proposamena egitea			X	X	X	18.300,00 €
		4.2.2. Bazterketa arriskuan dauden gazteei enplegurako eta prestakuntzarako aholkularitza eskaintzea			X	X	X	18.700,00 €
		4.2.3. Tolosako Udalak enplegu-plana egitea, plantillaren gaztetzea sustatzeko				X	X	Barne kudeaketa
		4.2.4. Emari co-working espazioa ekintzailtzarako erreferentziazko gunea bilakatzea, ez bakarrik lanerako espazio gisa, baita prestakuntzarako eta aholkularitzarako gune moduan ere			X	X	X	12.700,00 €
		4.2.5. Tolosako gazteen artean ekintzailtza sustatzeko dirulaguntza lerroa sustatzea				X	X	32.800,00 €
	4.3. Etxebizitza eskuratzeko aukerak eskaintzea eta erraztasunak ematea Tolosako gazteei	4.3.1. Gazteei zuzendutako alokairu sozialeko etxebizitzaren parkea handitzea			X	X	X	Barne kudeaketa
		4.3.2. Merkatu libreko etxebizitzak alokatzeko eta merkaturatzeko dirulaguntza lerroa indartzea eta sustatzea		X	X	X	X	250.000,00 €
		4.3.3. Jabeek merkatu libreko etxebizitzak alokatu eta merkaturatu ditzaten neurriak hartzen jarraitzea		X	X	X	X	100.000,00 €
	Guztira 4. ARDATZA							454.900,00 €

ARDATZAK		HELBURU ESTRATEGIKOAK	EKINTZAK	Kronograma					Aurrekontua
				2023	2024	2025	2026	2027	
5	Haur, nerabe eta gazteen saila indartzea, zabaltzea eta ikusaraztea	5.1. Haur, nerabe eta gazteen saila sortzea eta Udalaren antolaketan duen funtzioa birdefinitzea	5.1.1. Haur, nerabe eta gazteen saila definitzea eta funtzioak aitortzea	X	X				Barne kudeaketa
			5.1.2. Haur, nerabe eta gazteen sailaren beharrak identifikatzea eta baliabideak zehaztea: ekonomikoak zein pertsonalak	X	X				Barne kudeaketa
			5.1.3. Urtero, sailaren urteko ekintza-plana lantzea		X	X	X	X	Barne kudeaketa
			5.1.4. Haur, nerabe eta gazteen sailaren zeharlerrotasuna bultzatzeko, udal Gazteria Mahaia sortzea		X	X	X	X	Barne kudeaketa
			5.1.5. Udaleko sail desberdinek hiritartasuna eta parte-hartzea sustatzeko ikastetxe desberdinetan garatzen dituzten programa ezberdinak koordinatu eta horien aplikazio integralerako bideak jorratzea	X	X	X	X	X	Barne kudeaketa
		5.2. Haur, nerabe eta gazteen sailaren barne-zein kanpo-komunikazioa lantzea eta garatzea	5.2.1. Haur, nerabe eta gazteen sailaren komunikazio-plana diseinatzea eta kudeatzea		X	X	X	X	Barne kudeaketa
			5.2.2. Sailaren ikusgarritasuna lantzea: barne- zein kanpo-harremanak ehuntzea eta urteko ekintza-planen aurkezpenak egitea		X	X	X	X	Barne kudeaketa
		5.3. Udalaz gaindiko administrazioaren harremanetarako foroetan, bileretan nahiz ekimenetan parte-hartzea	5.3.1. Gipuzkoako Foru Aldundiaren Gaztematika sarean parte hartzea	X	X	X	X	X	Barne kudeaketa
			5.3.2. Ekimen bateratuak aztertzea (Eusko Jaurlaritzarekin, Foru Aldundiarekin, beste udalekin...) eta sailaren helburuekin bat egiten badu, ahal den neurrian, parte hartzea		X	X	X	X	Barne kudeaketa
		Guztira 5. ARDATZA							
Guztira 2023-2027 EKINTZA PLANA									946.900,00 €